



EUSKALTZAINDIA – REAL ACADEMIA

DE LA LENGUA VASCA

2022 EKITALDIKO URTEKO KONTUAK, AUDITORE
INDEPENDIENTE BATEK EGINDAKO IKUSKARITZA
TXOSTENAREKIN BATERA

KONTU-IKUSKARI INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO URTEKO KONTUEN
IKUSKARITZA TXOSTENA

EUSKALTZAINDIA - REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA erakundearen Zuzendaritzari:

Salbuespendun iritzia

EUSKALTZAINDIA - REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-ren (Erakundea) urteko kontuak ikuskatu ditugu. Urteko kontu hauek, 2022ko abenduaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontuak eta memoriak osatzen dituzte.

Gure iritziz, “*Salbuespendun iritzia emateko oinarria*” paragrafoetan azaldutako gertaeren balizko eraginengatik eta azaldutako gertaeren eraginengatik izan ezik, erantsitako urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, 2022ko abenduaren 31n Erakundearen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzena ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiarekin bat etorriz (memoriaren 2.a Oharrean adierazten dena), bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipio eta araeuekin.

Salbuespendun iritzia emateko oinarria

Erakundeak Bilbon duen egoitza eta Donostiako, Iruñeko eta Gasteizko ordezkariak dohainik lagata daude. Halaber, erakundearen batzorde, zerbitzu eta egitasmoetan egindako lanak Baionako elkarteak ere erabiltzen ditu. Erakundeak ez du nahitaezko dokumentaziorik (perituen balioespena edo antzekoa), aipatutako erabilera-eskubideen, zerbitzu eta lanen arrazoizko balioa zenbatekoa den zehazteko. Horrenbestez, ezin izan dugu zehaztu elementu horiek zer zenbatekoekin egon beharko zuketzen erregistratuta Erakundearen 2022ko abenduaren 31ko ibilgetu ukiezinean eta ondare garbian. Era berean, eta Erakundearen emaitzan eraginik ez badu ere, adierazi behar dugu ezin izan dugula zehaztu gertaera hauek 2022. ekitaldian ondare garbiaren birsailkapenean diru-sarrera moduan eta ibilgetu ukiezin horren amortizazio sistematiakoagatik eta emandako diru laguntzagatik gastu modura agertu beharko zuketzen zenbatekoak. Aurreko ekitaldiko urteko kontuei zegokien ikuskaritza txostenak ere gai honen inguruko albuespen bat zeukan.

2021eko ekitaldian, erakundeak helburu espezifikorik gabeko bi legatu jaso zituen, 85.880 euroko zenbateko bateratuarekin. Horiek balantzeko “Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak” epigrafean erregistratu ziren, eta erakundeak Gasteizko Udalaren aldetik 2021ean lagapenean jasotako Arabako ordezkariaren barne-egokitzapenarekin lotutako kostuen gehiengoa ordaintzera bideratu zituen. Legatu horien emaitzetara egozte, finantzatutako ondasunen amortizazioaren zuzkiduraren arabera egiten da. Testamentugileak xede jakin baterako izendatu gabe jasotako legatuak, aitortzen diren ekitaldiko soberakinean zuzenean kontabilizatu izan balira, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauek ezartzen duten bezala, 2022ko abenduaren 31ko balantzearen “Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak” epigrafeko, “Aurreko ekitaldietako soberakinak” eta “Ekitaldiko soberakinak” epigrafeko saldoak 77.407 eurotan, 83.735 eurotan eta 6.328 eurotan gutxitu, gehitu eta gutxituko lirateke, hurrenez hurren, eta 2022ko ekitaldiko emaitza-kontuko “Ekitaldiko soberakinari traspasatutako kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak” epigrafeko saldoa 6.328 eurotan gutxituko litzateke. Aurreko ekitaldiko urteko kontuei zegokien ikuskaritza txostenak ere gai honen inguruko albuespen bat zeukan.

Ikuskaritza lana, Espainian indarrean dagoen ikuskaritzaren arautegia jarraituz egin dugu. Arau horien arabera dagozkigun erantzukizunak, *Kontu-ikuskararen erantzukizuna urteko kontuen ikuskaritza dela eta atalean zehazten dira.*

Erakundetik independenteak gara, Espainiako urteko kontuen ikuskaritzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), ikuskaritzaren arautegian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontu-ikuskaritza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da inongo egoerarik gertatu zeinak aipatutako araudi-erregulatzailaren arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen.

Lortutako ikuskaritza ebidentziak gure salbuespandun ikuskaritza iritzirako nahikoa eta egokia den oinarria ematen digula deritzogu.

Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak

Gure iritzi profesionalaren arabera, ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak ekitaldi honetako urteko kontuen ikuskaritzan hutsegite garrantzitsuak egoteko arrisku esanguratsutzat hartutakoak dira. Arrisku hauek, gure ikuskaritzaren testuinguruan urteko kontuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi berezirik ematen.

Diru-laguntzen ondoriozko diru-sarreraren aitortzea

Diru-laguntzak dira Erakundearen finantziazio-iturri behinena. Diru-laguntzen ondoriozko diru-sarreraren aitortzea eta diru-laguntza bakoitzari egotzen zaizkion gastuak arlo esanguratsuak dira eta akats materialak ager daitezke bertan. Hori dela-eta, alderdi adierazgarritzat jo dugu gure ikuskaritzalanean.

Gure ikuskaritza-prozedura behinenean barne hartu dituzte, besteak beste, diru-laguntzen ondoriozko diru-sarreraren bilakaeraren berrikuspen analitikoak, kanpo-berrespenen lorpena diru-laguntzak ematen dituzten erakunde nagusien lagin baterako eta kobrantza-egiaztapenerako prozedurak. Halaber, emandako diru-laguntzen lagin bat oinarri hartuta emakida-agiria lortu dugu, baita diru-laguntzak ematen dituzten erakundeei aurkeztutako justifikazioak ere, eta diru-laguntzen sarrerak epe egokian zuzen egotzi diren egiaztatu dugu. Horrez gain, atxikitako memoriaren 4.j) eta 11. Oharretan zehatutako informazioaren egokitasuna ere ebaluatu dugu.

Urteko kontuen inguruan, Diruzainaren erantzukizuna

Diruzainaren erantzukizuna da erantsitako urteko kontuak egitea, Erakundearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz, Erakundeari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz eta baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik gabeko urteko kontuak prestatzeko bere ustez egokia den barne kontrola ere.

Urteko kontuak prestatzean, Diruzainaren erantzukizuna Erakundeak funtzionamenduan dagoen enpresa moduan jarraitzeko duen gaitasuna balioztatzea da, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak adieraziz eta funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz, Diruzainak erakundea likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa duenean edo beste aukera errealistik ez dagoenean izan ezik.

Kontu-ikuskaritza erantzukizuna urteko kontuen ikuskaritza dela eta

Gure helburuak urteko kontuek, haien osotasunean hartuta, iruzurrengatik edota errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta gure iritzia barneratzen duen ikuskaritza txosten bat igortzea dira.

Arrazoizko segurtasuna ziurtasun maila altua da, baina horrek ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritzaren araudia jarraituz egindako ikuskaritzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edota errakuntzengatik sor daitezke, eta garrantzitsutzat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragingo dutela aurreikusten bada.

Ikuskaritza txosten honen 1. eranskinean, urteko kontuen ikuskaritzari dagokionez ditugun erantzukizunen deskribapen zehatzagoa ematen da. Erantsita doan 4. orrialdean dagoen deskribapen hau gure ikuskaritza txostenaren atal bat da.

PKF ATTEST Servicios Empresariales, S.L.
ROAC-en izena emandakoa S1520 zk.

Firmado digitalmente por:
ASIER BARAÑANO (R:
B95221271)
ND: CN = 16057750R ASIER
BARAÑANO (R: B95221271) C =
ES O = PKF ATTEST SERVICIOS
EMPRESARIALES, SL
Fecha: 2023.05.10 16:34:29 +02'00'

Asier Barañano
ROAC-en izena emandakoa 18.046 zk.

2023ko maiatzaren 10n

Gure ikuskaritza txostenaren 1. eranskina

Gure ikuskaritza txostenean esandakoaz gain, Eranskin honetan urteko kontuen ikuskaritzari dagokionean ditugun erantzukizunak biltzen ditugu.

Kontu-ikuskarriaren erantzukizuna urteko kontuen ikuskaritza dela eta

Espanian indarrean dagoen kontuen ikuskaritzaren arautegia jarraituz egindako ikuskaritzan, eszeptizismoz eta irizpen profesionala ezarriz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteki arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatu eta aplikatu ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurrerengatik gerta daitezkeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzengatik eman daitezkeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihaspenaren ondorioz izan daitezke.
- Ikuskaritzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikaturako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta Administrazioaileek emandako informazioa ere.
- Administrazioaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen dugu; eta lortutako ikuskaritza ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa moduan jarraitzeko Erakundeak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskaritza txostenean urteko kontuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar izaten diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar izaten dugu. Gure ondorioak, ikuskaritza txosteneko datara arte lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Erakundeak funtzionamenduan dagoen enpresa izateari utz diezaioke.
- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura, edukia eta emandako informazioa balioztatzen ditugu, baita urteko kontuek transakzioak eta azpiko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.

Erakundeke Administrazioaileekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikaturako ikuskaritzaren irismena eta egite datak, eta ikuskaritzan azaldutako arlo esanguratsuak jakinarazteko, baita barne-kontrollean antzemandako balizko gabezia esanguratsuak jakinarazteko ere.

Administrazioaileei jakinarazi zaizkien arrisku esanguratsuen artean, egungo urteko kontuen ikuskaritzan adierazgarriak direnak zehazten ditugu, haiek izanik, ondorioz, gure ustez arriskurik garrantzitsuenak.

Arrisku hauek gure ikuskaritza txostenean deskribatzen ditugu, baldin eta legezko edo erregelamenduzko xedapenek gaia argitaratzea debekatzen ez badute.



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

EUSKALTZAINDIA – REAL ACADEMIA

DE LA LENGUA VASCA

2022 EKITALDIKO URTEKO KONTUAK

GONZALEZ DE
VIÑASPRE
GONZALO LUIS
ROBERTO -
[REDACTED]

Digitally signed by
GONZALEZ DE VIÑASPRE
GONZALO LUIS ROBERTO
[REDACTED]

Date: 2023.05.09 16:46:58
+02'00'



EUSKALTZAINDIA

EUSKALTZAINDIA - REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
2022 ETA 2021EKO ABENDUAREN 31KO BALANTZEAK
 (Eurotan)

	2022	2021	2022	2021
AKTIBOAK			PASIBOAK	
AKTIBO EZ-KORRONTEA:			ONDARE GARBIA:	
Ibilgetu ukiezina (5. Oharra)-			Fondo propioak (10. Oharra)-	
Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	44.658	100	Aurreko ekitaldietako soberakinak	1.139.630
Aplikazio informatikoak	363	663	Ekitaldiako soberakinak	(1.262)
	45.021	763		1.139.630
Ibilgetu materiala (6. Oharra)-			Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak (11. Oharra)	
Lurrak eta eraikuntzak	383.668	413.241	Ondare Garbia Guztira	1.488.432
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	181.741	95.390		
Bideango ibilgetua eta aurretrakinak	19.691	-		
	585.100	508.631		
Epe luzeko finantza-inbertsioak (7. Oharra)-			PASIBO EZ-KORRONTEA:	
Beste aktibo finantzarioak	30.601	30.601	Epe luzeko hornidurak (12. Oharra)-	
Aktibo Ez-korrontea Guztira	660.722	539.995	Personalaren epe luzeko lansariten obligazioak	79.778
			Pasibo Ez-korrontea Guztira	79.778
AKTIBO KORRONTEA:			PASIBO KORRONTEA:	
Izakinak	31.576	27.498	Epe laburreko zorrak (13. Oharra)-	
Erabiltzaileak eta berezko jarduerarekin lotutako zordunak (7. Oharra)	50.060	30.481	Beste pasibo finantzarioak	10.825
Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak (7. Oharra)			Hartzeko komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak (13. Oharra)	
Hainbat zordun	17.632	8.542	Hornitzaileak	137.586
Zordunak, Herri Aginteak (14. Oharra)	591.622	507.618	Langileria	663
	609.254	516.160	Hartzekodunak, Herri Aginteak (14. Oharra)	133.076
Epe laburreko finantza-inbertsioak (7. Oharra)	831	800	Hartzeko komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak (13. Oharra)	271.325
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak (9. Oharra)	541.122	695.231	Epe laburreko periodifikatzeak	406
Aktibo Korrontea Guztira	1.232.843	1.270.170	Pasibo Korrontea Guztira	282.556
AKTIBOAK GUZTIRA	1.893.565	1.810.165	PASIBOAK ETA ONDARE GARBIA GUZTIRA	1.893.565
				1.810.165

Arxikuitutako memoriako 1etik 18ra bitarteko Oharrek 2022ko abenduaren 31ko balantzea osatzen dute.



EUSKALTZAINDIA

EUSKALTZAINDIA - REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA2022 ETA 2021EKO ABENDUAREN 31N ITXITAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKIEN
GALDU-IRABAZIEN KONTUAK

(Eurotan)

	<u>2022</u>	<u>2021</u>
EKITALDIKO SOBERAKINA:		
Erakundearen berezko jardueraren sarrerak (15. Oharra)-		
Kideen kuotak	481	450
Erabiltzaileen ekarpenak	123.182	53.115
Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak (11. Oharra)	2.689.990	2.464.744
	<u>2.813.653</u>	<u>2.518.309</u>
Ekoizkin bukatuen eta fabrikazioan dauden ekoizkinen		
aldaketa	4.078	283
Enpresak bere aktiborako egindako lanak.	479	-
Ustiapeneko bestelako sarrerak-		
Sarrera gehigarriak eta kudeaketa arrunteko bestelakoak	-	28
Pertsonal gastuak-		
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(1.138.397)	(1.205.699)
Gizarte-zamak (15. Oharra)	(357.411)	(362.274)
Hornidurak (12. Oharra)	-	35.000
	<u>(1.495.808)</u>	<u>(1.532.973)</u>
Ustiapeneko bestelako gastuak-		
Kanpoko zerbitzuak (15. Oharra)	(1.301.903)	(965.180)
Tributuak	(877)	(3.834)
Merkataritza eragiketetatik datozen horniduren aldagetak, hondatzeak eta galerak (7. Oharra)	12	68
	<u>(1.302.768)</u>	<u>(968.946)</u>
Ibilgetuaren amortizazioa (5. eta 6. Oharrak)	(64.196)	(49.096)
Ekitaldiko soberakinari traspasatutako kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak (11. Oharra)	29.662	17.215
Ibilgetuaren besterenganatzeagatik izandako hondatzea eta emaitza (6. Oharra)-		
Narriadurak eta galerak	-	15.000
Besterentzeagatik izandako emaitzak eta bestelakoak	(860)	(511)
	<u>(860)</u>	<u>14.489</u>
Ezohiko emaitzak (14. Oharra)	14.498	-
USTIAPENeko SOBERAKINA	<u>(1.262)</u>	<u>(691)</u>
Sarrera finantzarioak-		
Balore negoziagarriak eta bestelako finantza-tresnak-		
Hirugarrenenak	-	9
Gastu finantzarioak-		
Hirugarreneneko zorrenak (13. Oharra)	-	(440)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA	<u>-</u>	<u>(431)</u>
ZERGA AURREKO SOBERAKINA	<u>(1.262)</u>	<u>(1.122)</u>
Sozietateen gaineko Zerga	-	-
EKITALDIKO SOBERAKINEAN AITORTUTAKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETA	<u>(1.262)</u>	<u>(1.122)</u>
ONDARE GARBIARI ZUZENEAN EGOTZITAKO GASTU ETA SARRERAK:		
Jasotako subentzioak (11. Oharra)	73.723	95.132
ONDARE GARBIAN ZUZENEAN AITORTUTAKO GASTU ETA SARRERENGATIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETA	<u>73.723</u>	<u>95.132</u>
EKITALDIKO SOBERAKINERA BIRSAILKATZEAK:		
Jasotako subentzioak (11. Oharra)	(29.662)	(17.385)
EKITALDIKO SOBERAKINERA EGINDAKO BIRSAILKATZEENGATIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETA	<u>(29.662)</u>	<u>(17.385)</u>
ONDARE GARBIARI ZUZENEAN EGOTZITAKO GASTU ETA SARRERENGATIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETA	<u>44.061</u>	<u>77.747</u>
EMAITZA GUZTIRA, EKITALDIAN ONDARE GARBIAK IZANDAKO ALDAKETA	<u>42.799</u>	<u>76.625</u>

Atxikitutako memoriako 1etik 18ra bitarteko Oharrek 2022ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko galdu-irabazien kontua osatzen dute.



EUSKALTZAINDIA

EUSKALTZAINDIA-REAL ACADEMIA

DE LA LENGUA VASCA

2022ko ABENDUAREN 31n ITXITAKO

URTEKO EKITALDIARI DAGOKION MEMORIA

(1) **Erakundearen jarduera**

Euskaltzaindia (aurrerantzean, Erakundea) 1918. urtean sortu zen, Eusko Ikaskuntzaren Lehen Biltzarrean. Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoako Aldundiek Erakundearen estatutuak onetsi zituzten eta lehen bilkura akademikoa 1919ko urriaren 7an egin zen.

1976an, Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak proposatu eta alde zuzenetik Ministroen Kontseiluan eztabaidaturik, otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuaren bitartez xedatu zen Erakundeari izaera ofiziala ematea, Estatutuak eta "Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia" izena onestea eta, orobat, onartzea haren jarduera-esparrua Arabako, Gipuzkoako, Nafarroako eta Bizkaiko lurraldeetan gauzatuko zela.

Eusko Kontseilu Nagusiak 1978an erabaki zuen Euskaltzaindia Euskadiko organo ofizial modura onartzea, euskara gorde, landu, finkatu eta bateratzeari dagokionez. Egoera hau Gernikako Estatutuak berretsi zuen; estatutu horretako 6. artikuluan esaten da Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala, euskarari dagokionez.

Nafarroako Gobernuak abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean onartzen du Euskaltzaindia erakunde ofizial modura, euskarari dagokionez.

573/1976 Errege Dekretuak, otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuak eta ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuak neurri batean aldatuak, Erakundearen estatutuak finkatzen ditu eta ondokoak haren xede ezartzen:

- Euskararen gramatika legeak ikertu eta mamitzea.
- Euskaraz idazteko lanetarako orientabideak eta arauak ematea.
- Euskararen lexikoa inbentariatzea.
- Lexikoan, gramatikan eta grafian literatura-hizkuntza bateratua prestatzeko lanak egitea.
- Euskara sustatzea.
- Euskararen eskubideak zaintzea.
- Hizkuntza gaitzeko lanak egitea, maila guztietan erkidegoaren adierazpide izan dadin.



EUSKALTZAINDIA

- Literatura- eta didaktika-lehiaketak egin daitezen sustatzea.
- Filologia eta hizkuntzalaritzako ikasketak bultzatzea, euskal hizkuntza eta literaturako katedrak sortuz.
- Behar diren titulu eta egiaztagiria luzatzea.

Eginkizun horiekin bat etorritik, Erakundeak bi sail handi ditu: Iker Saila eta Jagon Saila.

Erakundeak egoitza Bilbon dauka eta ordezkaritza bana Donostian, Gasteizen eta Iruñean.

Erakundeak egoitza Bilbon du eta gaur egungo helbidea Plaza Barriko 15a da. Egoitza hau zaharberritu zen eta Bizkaiko Foru Aldundiak laga zion, doan; 1991ko urriaren 21ean ireki zituen ateak. Erakundearen identifikazio Fiskaleko Zenbakia G48091961 da.

Erakundeak 33 euskaltzain oso ditu eta horietatik 9 euskaltzain emerituak dira. Horiez gainera, euskaltzain urgazleak eta ohorezko euskaltzainak ditu. Euskaltzain osoak euskaltzain emeritu bilakatuko dira adinagatik edo ezintasunagatik. Euskaltzain urgazle eta ohorezko euskaltzainendako ez dago denbora-mugarik ezarrita.

Akademiak Zuzendaritza du eta kide hauek osatzen dute: Burua, Buruordea, Idazkaria, Diruzaina, Iker sailburua eta Jagon sailburua. Denak euskaltzain osoak izango dira.

Zuzendaritza hamabostean behin biltzen da eta berari dagokio lan batzordeak osatzen dituztenen izen-deiturak proposatzea eta jarduera akademikoarekin zerikusirik ez duten Erakundearen barne-gobernurako gaien gainean erabakitzea. Hilabete behin ohiko osoko bilkura egiten da eta euskaltzain osoak bertaratzen dira. Baita euskaltzain urgazleak ere, lantzen diren gaien arabera.

2015eko apirilaren 21ean, Erakundeak Euskaltzaindiaren ALDE Fundazioa – Fundación PRO Real Academia de la Lengua Vasca eratzea erabaki zuen, Akademiaren helburuak zein jarduerak babestu eta bultzatzeko xedearekin. Fundazioa eratzeko lehen eskriturak 2015eko maiatzaren 6an egiletsi ziren, Juan Ramón Manzano Malaxechevarria Notario jaunaren sinadurarekin, 632 protokolo-zenbakiarekin.

Hasieran, Fundazioa Euskaltzaindiak baino ez du eratuko; hori bai, “Sortze-gutuna” delakoaren izaerarekin, beraz, fundatzaile izango dira, era berean, eraketa-eskritura egiletsi denetik hiru urtean Euskaltzaindiaren ALDE Fundazioa – Fundación PRO Real Academia de la Lengua Vasca erakundeari atxikitzen zaizkion pertsona fisikoak eta juridikoak.

Kontuan hartuta eratze-eskriturak sortze-gutun direla, Fundazioaren estreinako aldian kudeaketa aurrera eraman ahal izateko, behin-behinean onetsi zen lehenengo Patronatua sei kidek baino ez osatzea; hain zuzen ere Euskaltzaindia – Real Academia de la Lengua Vasca erakundearen gobernu-batzarrean hitza eta boto-eskubidea zutenak, Fundazioa eratu zen unean.

Euskaltzaindiaren ALDE Fundazioa – Fundación PRO Real Academia de la Lengua Vasca erakundearen eskriturretan jasota dagoen legez (14. artikulua), behin betiko Patronatuko



EUSKALTZAINDIA

batza hamabi kidek osatuko dute, gutxienez, eta hogeita lauk, gehienez. Euskaltzaindia – Real Academia de la Lengua Vasca erakundeak patronatuko lau kide izendatuko ditu.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n Erakundeak ez du zorrik “Euskaltzaindiaren ALDE Fundazioa – Fundación PRO Real Academia de la Lengua Vasca”-rekin, eta 2022ko eta 2021eko ekitaldietan zehar Erakundeak ez ditu Fundazioarekin eragiketak erregistratu galdu-irabazien kontuan.

Erakundea, erakunde publiko eta pribatuengandik jasotako diru-laguntzen bidez finantzatzen da batez ere (2.c eta 11. Oharrak).

Kontu hauek eurotan aurkeztu dira, hori baita Erakundeak jarduteko eta kontuak aurkezteko erabiltzen duen txanpona.

(2) Urteko Kontuak aurkezteko oinarriak

a) *Irudi fidela-*

Erakundeari aplikagarri zaion finantza-informazioaren araudi-esparrua ondokoetan ezarritakoa da:

- a. Irabazi asmorik gabeko entitateei dagokien Kontabilitate-plana, Kontabilitateko eta Kontu-ikuskaritzako Institutuak (ICAC) 2013ko martxoaren 26an Erresoluzio baten bitartez onetsia eta haren aldaketak eta egokitzapenak.
- b. Nahitaez bete beharreko arauak, Kontabilitateko eta Kontu-ikuskaritzako Institutuak (ICAC) Kontabilitate-plan Orokorra eta haren arau osagarriak garatuz onetsitakoak.
- c. Aplikagarria zaion Espainiako gainerako kontabilitate-araudia.

2022. ekitaldiko urteko kontuak Erakundearen kontabilitate-erregistroetatik atera dira eta Erakundearen Diruzainak formulatu ditu ondarearen, finantza-egoeraren eta Erakundearen ondare garbian izandako aldaketen irudi zehatza agertzeko, indarra duen legerian eta, oro har, bildutako kontabilitate-printzipioak aplikatu ondoren.

Urteko kontu horiek Erakundearen Diruzainak formulatu eta Zuzendaritzak onetsi zituen, 2023ko maiatzaren 9an. Bestalde, 2021eko ekitaldiko urteko kontuak Erakundearen Zuzendaritzak onetsi zituen, 2022ko maiatzaren 10ean egindako ohiko bileran.

b) *Kontabilitate-printzipioak eta balorazio-arauak-*

2022ko ekitaldiko urteko kontuak prestatzeko, aplikagarria den finantza-informazioaren araudi-esparrua erabili da eta, bereziki, 4. Oharrean deskribatutako erregistro- eta balorazio-arauak. Erakundearen Diruzainak urteko kontu hauek formulatu ditu kontuan izanez urteko kontu horietan ondorio adierazgarria duten eta nahitaez aplikatu behar diren kontabilitate-printzipio eta -arau guztiak. Urteko kontu hauek prestatzean ez da nahitaezko kontabilitate-printzipio bakar bat ere aplikatu gabe utzi,



EUSKALTZAINDIA

printzipio horien ondorioa adierazgarria bazen. Era berean, ez dira nahitaezkoak ez diren kontabilitate-printzipioak aplikatu.

c) **Ziurgabetasunaren balorazioari buruzko alderdi kritikoak -**

1) **Kontabilitate zenbatespen esanguratsuak eta hipotesiak-**

2022ko ekitaldiko urteko kontuak prestatzean, Erakundearen Diruzainak emandako iritziak eta egindako zenbatespenak erabili dira, kontu horietan erregistraturiko aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromisoetako batzuk kuantifikatzeko. Esperientzia historikoan eta gaur egungo egoeran arrazoizkotzat jotzen diren beste faktore batzuetan oinarrituta daude zenbatespen horiek.

Zenbatespen horiek 2022ko ekitaldia ixtean aztertutako gertaerei buruz eskuragarri zegoen informazio onenaren arabera egin badira ere, baliteke etorkizunean gerta daitezkeen gertakariak hurrengo ekitaldietan aldatzera behartzea, eta hori, hala badagokio, prospektiboki egingo litzateke.

12. Oharrean esandakoa izan ezik, ez dago etorkizunari buruzko balizko giltzarrikerik, ezta ekitaldia ixteko egunean ziurgabetasunaren zenbatespenaren gaineko datu adierazgarrikerik ere, hau da, hurrengo ekitaldian aktiboen eta pasiboen balioan aldaketa adierazgarriak ekarriko lituzkeen arrisku garrantzitsu bati loturik daudenak.

2) **Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa-**

Erakundea, erakunde publiko eta pribatuengandik jasotako diru-laguntzen bidez finantzatzen da batez ere (1go eta 11. Oharrak). Zentzu honetan, bere diru iturri nagusia Euskaltzaindiak eta Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Foru Aldundiek sinatutako Programa Kontratutik dator.

2022an indarrean egon den Programa Kontratua 2021eko uztailaren 5ean sinatu zen eta 2021-2024 aldirako lankidetzarako oinarri orokorrak ezartzea du xede, batetik, Euskaltzaindiaren eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Foru Aldundien artean. Baita alde bakoitzak bere gain hartzen zituen konpromiso finantzarioen eta materialen esparrua arautzeko ere, Erakundearen etorkizuneko jarduera eta kontuen aldian aldiko errendapena bermatzeko. Hitzarmen hau 2021eko urtarrilaren 1ean hasi eta aurreikusitako lau urteko indarraldia izango du, urtez urte luzatzeko aukerarekin.

Hori dela eta, Erakundeak 2022ko ekitaldiko urteko kontuak egin ditu funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioari jarraikiz. Kontabilitate-printzipio honek Erakundeak jarraitutasuna izango duela suposatzen du eta, beraz, aktiboak berreskuratuko dituela eta bere pasiboak likidatuko dituela eragiketen ohiko bilakaeran. Hortaz, kontabilitate-printzipioen aplikazioa ez da bideratuko Erakundea, guztiz edo zati batean, inorenganatzean ondareak izango duen balioa zehaztera, ezta likidatuz gero izango lukeena ere.



d) Informazioaren konparazioa-

2022ko ekitaldiko urteko kontuetan ageri dira balantzeko eta emaitzen kontuko kontu-sail bakoitzarekin eta 2022ko ekitaldiko zenbatekoekin batera aurreko ekitaldiari dagozkionak, bi ekitaldiak konparatzeko. Era berean, oroitidazki honetan 2022ko ekitaldiko informazioarekin batera 2021eko ekitaldikoa aurkeztu da, bi ekitaldiak konparatzeko.

e) Kontabilitate irizpideen aldatzea-

2022ko ekitaldian zehar ez da kontabilitate irizpide aldaketa esanguratsurik eman, aurreko ekitaldian aplikatutako irizpideekiko.

f) Akats zuzenketa-

2022ko kontuak prestatzean, ez da inongo akats adierazgarririk detektatu, aurreko ekitaldiko urteko kontuetako zenbatekoak berriz idaztera behartuko luketenik.

g) Garrantzi erlatiboa-

Oroitidazki honetan finantza-egoeretako eta bestelako gaietako kontu-sailen gainean informazioa xehatzerakoan, Erakundeak garrantzi erlatiboa kontuan izan du 2022ko ekitaldiko urteko kontuei dagokienez.

h) Ingurumenaren gaineko eragina-

Erakundeak egiten dituen jarduerak direla-eta, Erakundeak ez du ondareari, finantza-egoerari eta emaitzei dagokienez ingurumen arloan adierazgarriak izan daitezkeen erantzukizun, gastu, aktibo, hornidura edo arriskurik. Hori dela-eta, oroitidazki honetan ez da berriazko banakapenik sartu ingurumen arloko informazioaren gainean.

i) Berotegi-gasen isurien eskubideen gaineko informazioa-

Erakundeak ez du berotegi-gasen isurien eskubiderik izan, 2022ko eta 2021eko ekitaldietan.

(3) Soberakinaren aplikazioa

Erakundearen Diruzainaren asmoa da 2022ko ekitaldiko soberakin negatibo osoa honako honi atxikitako balantzeko "Aurreko ekitaldietako soberakinak" epigrafeari egozte.

Era berean, 2022ko maiatzaren 10ean Erakundearen Zuzendaritzak 2021eko ekitaldiko soberakina "Aurreko ekitaldietako soberakinak" epigrafeari egozte erabaki zuen.



(4) **Erregistro- eta balorazio-arauak**

2022ko ekitaldiko urteko kontuak prestatzean aplikatu diren erregistro- eta balorazio-arau adierazgarrienak jarraian laburbiltzen dira:

a) ***Ibilgetu ukiezina-***

Aplikazio informatikoetan eta web orrien garapenean izandako kostuei balio hau ematen zaie: kostu horiek eskuratzeko edo programa informatikoak erabiltzeko eskubideaz gozatzeko ordaindutako zenbatekoak, ekitaldi batean baino gehiagotan erabiliko direla aurreikusten bada eta kopuru garbitan aurkezten dira, metatutako amortizazioa eta hondatzeagatik jasan dituzten balizko galerak kendurik.

"Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak" kontuan sartutako kostuei balio hau ematen zaie: patente, lizentzia, marka eta antzekoen jabetza eskuratzeko edo erabiltzeko eskubideaz gozatzeko ordaindutako zenbatekoak, baldin eta kontratuaren baldintza ekonomiko eta legaletatik jabetza duen Erakundeak hauek inbentariatu behar dituela ondorioztatzen bada, eta ekitaldi batean baino gehiagotan erabiliko direla aurreikusten bada.

Aktiboen erabilera hobetu ez eta haien bizitza erabilgarria luzatzen ez duten mantentze, kontserbazio eta konponketa gastuak emaitzei egozten zaizkie, sortzapenaren printzipioari jarraikiz eta sortzen diren ekitaldiko kostu moduan hartuz.

Erakundeak ibilgetu ukiezina metodo linealaren arabera amortizatzen du. Horretarako, ibilgetuaren erosketa-kostuari, hala behar denean, hondar-balioa kentzen dio eta zenbateko hori zenbatetsitako bizitza-urte erabilgarrien artean banatzen du. Horren guztiaren xehetasuna, hauxe:

	Zenbatetsitako bizitza- urte erabilgarriak
Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	10
Aplikazio informatikoak	3 eta 5

2022ko ekitaldiko emaitzen kontuan, 4.142 euroko zordunketa egin da ibilgetu ukiezina amortizatzearen kontzeptuagatik (247 euro 2021eko ekitaldian) (5. Oharra).

Aktibo horiek hondatzeagatik izandako galerak onartzeko irizpideak eta, hala behar denean, aurreko ekitaldietan hondatzeagatik erregistratutako galeren berreskuraketak 4.c. Oharrean deskribatu dira.



b) Ibilgetu materiala-

Ibilgetu materialeko ondasunei balio hau eman zaie: hasiera batean ondasun horiek erosteko salneurria edo ekoizteko kostua eta, gero, haien kostu garbia, behar den amortizazio metatua eta hondatzeagatik izan dituzten balizko galerak kendurik.

Ibilgetu materialeko ondasunak berritzeko, handitzeko edo hobetzeko kostuak aktiboan sartzen dira, ondasunen balioa handituz, haien ahalmena eta produktibitatea handitzen direlako edo bizitza erabilgarria luzatzen delako eta ordezkaturako edo berritutako elementuak kontabilitatetik kentzen direlako.

Aktiboen erabilera hobetu ez duten eta haien bizitza erabilgarria luzatzen ez duten mantentze, kontserbazio eta konponketa gastuak emaitzei egozten zaizkie, sortzapenaren printzipioari jarraikiz eta giten diren ekitaldian kostu moduan hartuz.

Efektiborik sortzen ez duten ibilgetu materialeko ondasunak dira merkataritza etekina sortzeko helbururik ez dutenak, esate baterako, aktibo horiek sortzen dituzten eta kolektibitateari onura ematen dioten fluxu ekonomiko sozialak, hau da, haien zerbitzuaren etekin sozial edo potentziala.

Erakundeak ibilgetu materiala metodo linealaren arabera amortizatzen du. Horretarako, erosketa-kostuari, hala behar denean, hondar-balioa kentzen dio eta zenbatetsitako bizitza-urte erabilgarrien artean banatzen du. Horren guztiaren xehetasuna, hauxe:

	Zenbatetsitako bizitza-urte erabilgarriak
Eraikuntzak	24 eta 33
Instalazio teknikoak eta makineria	5 eta 10
Bestelako instalazioak	10
Altzariak	5 eta 10
Informazioa prozesatzeko ekipoak	5
Garraio elementuak	10
Bestelako ibilgetu materiala	5 eta 10

Erakundeak Bilbon duen egoitzaren lagapena 2015eko martxoan bukatzen zen. Hortaz, lagapenaren luzapenaren berri izan arte, Bilboko egoitzari zegozkien ibilgetu eramangarri ezinak, aipaturako datan erabat amortizatuta egon zitezkeen linealki amortizatzen ziren. 2014ko irailaren 11n Erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 10 urterako luzapen akordioa sinatu zuten, 2014ko irailaren 1etik hasita. Dena den, eta Bizkaiko Foru Aldundiak kontrakorik esaten ez badu, baimen hori, automatikoki, hamar (10) urteko beste epe birako luzatu ahal izango da (6. Oharra).

Erakundeak ibilgetu materialaren hondar-balioa, bizitza erabilgarria eta amortizazio-metodoa ekitaldi bakoitzaren itxieran berrikusten ditu. Hasieran ezarritako irizpideetan gertaturiko aldaketak, baleude, zenbatespen-aldaketa moduan onartzen dira.



2022ko ekitaldiko emaitzen kontuan 60.054 euroko zordunketa egin zen, ibilgetu materialaren amortizazio kontzeptuagatik (48.849 euro 2021eko ekitaldian) (6. Oharra).

Aktibo bat besterentzearen edo kentzearen ondoriozko onura edo galera honela kalkulatzen da: salmentaren salneurriaren eta aktiboak liburuetan duen zenbatekoaren arteko aldea. Zenbateko hori emaitzen kontuan onartzen da.

Erakundearen Diruzainak uste du aktiboen kontabilitate-balioa ez dela aktibo horien balio berreskuragarria baino handiagoa, balio hori 4.c. Oharrean azaldutakoaren arabera kalkulatu ondoren.

Aktibo horiek hondatzeagatik izandako galerak onartzeko irizpideak eta, hala behar denean, aurreko ekitaldian hondatzeagatik izandako galeren berreskuraketak 4.c. Oharrean deskribatzen dira.

c) *Ibilgetu materialaren eta ibilgetu ukiezinaren balioa hondatzea-*

Hondatzeagatik, ibilgetu materialeko eta ibilgetu ukiezineko elementu baten balioa galtzen da elementu horren kontabilitate-balioa zenbateko berreskuragarria baino handiagoa denean; zenbateko hori bere arrazoizko balioari salmenta-kostuak eta erabilera-balioa kendu ondoren ateratako zenbatekorik handiena izanen da. Efektibo-fluxuak sortzen ez duen aktibo baten balioa hondatzen da zerbitzu aktiboaren ahalmena galtzen denean eta ez da amortizaziotzat hartzen den balio-galera sistematiko eta erregularra bezalakoa. Hondatzea, beraz, aktiboak ematen duen erabilgarritasuna murriztea da. Indarra duen araudiaren arabera, efektibo-fluxurik sortzen ez duen aktibo baten erabilera-balioa zehaztuko da hura berriz jartzea kostatzen dena erreferentetzat harturik.

Ondorio hauetarako, ekitaldiaren itxieran gutxienez, Erakundeak ebaluatzen du ba ote den hondatuta egon daitekeen ibilgetu materialeko edo ibilgetu ukiezineko elementurik eta, hala bada, haren zenbateko berreskuragarria zenbatesten du, behar diren balio-zuzenketak egin ondoren. Ibilgetu materialeko edo ibilgetu ukiezineko elementuetan hondatzeagatik izandako balio-zuzenketak eta haien leheneratzea, haiek sortu zituzten inguruabarrak jadanik ez badago, gastu edo sarrera moduan onartzen dira emaitzen kontuan. Hondatzearen leheneratzeak muga izango du, hain zuzen ere balio-galera erregistratu izan ez balitz, leheneratzearen egunean onartuta legokeen ibilgetuaren kontabilitate-balioa.

d) *Errentamendu operatiboa-*

Errentamendu operatiboko eragiketetan, errentan hartutako ondasunaren jabetza eta, funtsean, ondasunaren gaineko arrisku eta abantaila guztiak errentatzailearenak dira.

Erakundea denean errentaria, errentamendu operatiboko akordioetatik eratorritako gastuak galdu-irabazien kontuari zorduntzen zaizkio, haiek sortzen diren ekitaldian.



Errentamendu operatibo bat kontratatzerakoan egin daitekeen edozein kobrantza edo ordainketa aurretiko kobrantza edo ordainketa modura hartuko da eta emaitzen kontuari egotziko zaio errentamenduak irauten duen bitartean, errentan hartutako aktiboaren etekinak lagatzen edo jasotzen diren heinean.

e) *Izakinak-*

2022ko abenduaren 31n, Erakundearen argitaratze-jardueratik eratorritako izakinei eta saldu gabeko liburuei balio hau eman zaie: izakin edo liburuen balio garbi egingarria, etorkizuneko efektibo-fluxu zenbatetsitakoan gaur egungo balio moduan kalkulatua (etorkizunean fakturatzea aurreikusten diren zenbateko garbien gaur egungo balioa, edozein deskontu, beherapen edo antzeko zenbateko kendu ondoren).

Erakundearen Diruzainak uste du hala lortutako balioa erosketa-kostua baino txikiagoa dela eta, beraz, aktibo hauekin berreskura daitekeen zenbatekoaren zenbatespenik onena islatzen duela.

f) *Finantza-tresnak-*

Finantza-tresna bat kontratu bat da, entitate batean finantza-aktibo bat sortzen duena eta, aldi berean, finantza-pasibo bat edo ondare-tresna bat beste entitate batean.

Finantza-tresnak sailkatzen dira hasiera batean onartzen direnean emandako ezaugarriaren arabera; finantza-aktibo bat, finantza-pasibo bat edo norberaren ondareko tresna bat izan daitezke, kontratu-erabakiaren funts ekonomikoaren arabera eta finantza-aktiboaren, finantza-pasiboaren edo ondare-tresnaren definizioekin bat etorriz.

Erakundeak finantza-tresna bat aitortzen du bere balantzean, haren xedapenen arabera, kontratuaren edo negozio juridikoaren nahitaezko alderdi bihurtzen denean, bai jaulkitzaile gisa, bai edukitzaile edo eskuratzaile gisa.

Finantza-aktiboak

Sailkapena eta balorazioa-

Erakundeak dituen finantza-aktiboak kategoria honetakoak dira:

1. Aktibo finantzarioak kostu amortizatuan:

Aktibo finantzario bat kategoria honetan sartzen da, baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere, baldin eta kontratua gauzatzetik eratorritako diru-fluxuak jasotzeko inbertsioari eustea helburu duen negozio-eredu baten esparruan mantentzen bada, eta aktibo finantzarioaren kontratu-baldintzek, zehaztutako datetan, diru-fluxuak sorrarazten dituzte, hau da, printzipalaren kobrantzak eta ordaintzeko dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak soilik.



EUSKALTZAINDIA

Ordaintzeke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko printzipala eta interesa baino ez duten kontratuzko diru-fluxuak, mailegu arrunt edo erkide izaera duen akordio baten berezkoak dira, hargatik eragotzi gabe eragiketa zero interes-tasan edo merkatutik beherako interes-tasan adostea.

Finantza-aktiboen talde bat bere kontratu-fluxuak lortzeko kudeatzeak ez du esan nahi erakundeak tresna guztiei eutsi behar dienik mugaegunera arte; finantza-aktiboak helburu horrekin kudeatzen direla pentsatu ahal izango da, nahiz eta etorkizunean salmentak gertatu edo gertatzea espero izan. Horretarako, Erakundeak kontuan hartzen ditu aurreko ekitaldietako salmenten maiztasuna, zenbatekoa eta egutegia, salmenta horien arrazoiak eta etorkizuneko salmenten jarduerarekiko igurikimenak. Erakundeak inbertsio horien inguruan egiten duen kudeaketa egitatezko kontua da, eta ez dago bere asmoen mende banakako tresna batentzat.

Oro har, kategoria honetan sartzen dira onuradunen, erabiltzaileen, babesleen eta afiliatuen aurrean egindako eragiketetan sortutako kredituak (Erakundearen berezko jardueragatiko kredituak), edo erakundearen jardueretan jatorria izan ez arren ondare-tresnak edo deribatuak ez direnak eta erakundeak emandako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik datozen zenbateko jakin edo zehaztagarriko kobrantzak dituztenak (eragiketa-hondarregatiko kredituak).

Erakundearen ustez, hirugarrenei lagako zaizkien eta haiei baja emango ez dieten zordunak eta kobratu beharreko kontuak negozio-eredu horretan mantentzen dira.

Kategoria honetan sailkatutako aktibo finantzarioak arrazoizko balioaren arabera balioesten dira hasieran; kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa da, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak. Ondoren, finantza-aktibo horiek kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira. Sortutako interesak emaitzen kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Hala ere, urtebetetik beherako epemuga duten eta kontratuzko interes-tasa espliziturik ez duten onuradun, erabiltzaile, babesle eta afiliatuen aurrean norberaren jardueraren eragiketetan sortutako kredituak, bai eta langileentzako kredituak ere, horien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero bada, beren balio nominalaren arabera balioetsiko dira diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Aktibo finantzario baten kontratuko diru-fluxuak jaulkitzailearen finantza-zailtasunen ondorioz aldatzen direnean, erakundeak balio-narriaduragatiko galera kontabilizatu behar den aztertzen du.

Ekitaldi-itxieran, gutxienez, beharrezkoak diren balio-zuzenketak egiten dira, baldin eta ebidentzia objektiboa badago aktibo finantzario baten edo antzeko arrisku-ezaugarriak dituzten aktibo finantzarioen talde baten balioa narriatu egin dela hasierako aintzatespenaren ondoren gertatu den gertaera baten edo gehiagoren ondorioz, eta horrek etorkizuneko diru-fluxu zenbatetsiak murriztea edo atzeratzea eragiten duela, zordunaren kaudimengabeziaren ondorioz. Kasu horretan, aktibo finantzario horien balio-narriaduragatiko galera liburu-balioaren eta etorkizuneko diru-fluxuen balio eguneratuaren arteko diferentzia da, hala badagokio, berme errealak



eta pertsonalak gauzatzetik datozenak barne, hasieran kontabilizatzen direnean kalkulaturako interes-tasa efektibora deskontatuta sortuko dutela uste baita.

Narriaduragatiko balio-zuzenketak eta itzulketak, galera horren zenbatekoa ondorengo gertaera batekin lotutako arrazoiengatik murrizten denean, gastu edo sarrera gisa aitortzen dira, hurrenez hurren, emaitzen kontuan. Narriaduraren itzulketak aktiboaren kontabilitate-balioa du mugatzat, balio-narriadurarik erregistratu izan ez balitz lehengoratzeko-datan aitortuta egongo litzatekeena.

Erakundeak zuzenean murrizten du aktibo finantzario baten zenbatekoa liburuetan, erabat edo partzialki berreskuratzeko arrazoizko itxaropenik ez duenean.

Bereziki, Erakundearen beraren jardueraren kredituen narriaduragatik egindako balio-zuzenketak Zuzendaritzak iritzi handia izatea dakar. Erakundeak erakundearen beraren jardueraren kredituen narriaduraren ebidentzia objektiboa dagoela zehazten du, banakako azterketa baten bidez. Ildo horretatik, erakundeak, oro har, urtebete baino gehiagoko antzinatasuna duten eta kobratzeke dauden saldoak narriatzen ditu, administrazio- edo salbuespen-izaera duten atzerapenak direnean izan ezik.

Finantza-aktiboen baja-

Erakundeak aktibo finantzario bati edo haren zati bati baja ematen dio aktibo finantzarioaren diru-fluxuen gaineko kontratu-eskubideak amaitzen direnean edo laga direnean, eta haren jabetzari datxezkion arriskuak eta onurak funtsean transferitu direnean, erakundearen esposizioa, lagapenaren aurretik eta ondoren, transferitutako aktiboaren diru-fluxu garbien zenbatekoen eta egutegiaren aldaketarekin alderatuz ebaluatzen diren egoeretan. Aktibo finantzarioaren jabetzari datxezkion arriskuak eta mozkinak funtsean laga direla ulertuko da, aldakuntza horrekiko esposizioak aktibo finantzarioarekin lotutako etorkizuneko diru-fluxu garbien balio eguneratuaren aldaketa osoari dagokionez esanguratsua izateari uzten dionean.

Aktibo finantzarioari baja ematen zaionean, transakzio-kostu egozgarrietatik jasotako kontraprestazio garbiaren (lortutako edozein aktibo berri kontuan hartuta, bere gain hartutako edozein pasibo berri kenduta) eta aktibo finantzarioaren kontabilitate-balioaren arteko aldeak aktibo horri baja ematean sortutako irabazia edo galera zehazten du, eta hori baja ematen zaion ekitaldiko emaitzaren parte da. Halaber, zuzenean ondare garbian metatutako edozein irabazi edo galera emaitzen kontura birsailkatzen da.

Finantza-pasiboak

Jaulkitako, egindako edo bereganatutako finantza-tresnak pasibo finantzario gisa sailkatzen dira, osorik edo zatiren batean, baldin eta, beren errealitate ekonomikoaren arabera, erakundeari kontratuzko betebeharrak badakarkio, zuzeneko edo zeharkakoa, eskudirua edo beste aktibo finantzario bat entregatzekoa, edo finantza-aktiboak edo -pasiboak hirugarrenekin trukatzekoa, baldintza potentzialki kaltegarrietan, hala nola jaulkitzaileak nahitaez berrerosi behar duela aurreikusten duen finantza-tresna bat, edo jaulkitzaileari zenbateko jakin bat eskatu ahal izateko eskubidea.



Sailkapena eta balorazioa-

Erakundeak dituen finantza-pasiboak kategoria honetakoak dira:

1. Pasibo finantzarioak kostu amortizatuan

Erakundeak kategoria honetan sailkatzen ditu pasibo finantzario guztiak, emaitza-kontuan aldaketak eginez arrazoizko balioan baloratu behar direnean izan ezik.

Oro har, kategoria honetan sartzen dira berezko jardueraren eragiketetan sortu diren erakundearen zorrak (ordainketa geroratuko jardueren eragiketengatik ondasunak eta zerbitzuak erostean sortzen diren pasibo finantzarioak), eta erakundearen jardueretan jatorria ez duten eragiketengatik zorrak (tresna eratorriak izan gabe, jardueretatik eratorriak ez diren, baizik eta mailegu-eragiketetatik datozen finantza-pasiboak).

Kategoria honetan sartutako pasibo finantzarioak arrazoizko balioaren arabera balioesten dira hasieran; kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa da, hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuen arabera doituta. Ondoren, finantza-pasibo horiek kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira. Sortutako interesak emaitzen kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta epe laburrean ordaintzea espero den kontratu-interes-tasarik ez duten norberaren jardueraren eragiketengatik zorrak balio nominalaren arabera baloratzen dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Finantza-pasiboen baja-

Erakundeak pasibo finantzario bati edo horren zati bati baja ematen dio betebeharra iraungi denean; hau da, ordaindu, ezereztu edo iraungi denean. Erakundeak onartzen du pasibo finantzarioaren edo pasibo finantzarioaren zatiaren eta ordaindutako kontraprestazioaren arteko aldea (eratziki daitezkeen transakzio-kostuak eta onartutako eskudirua edo pasiboa ez den lagatako edozein aktibo barne), gertatzen den emaitza-kontuan zordunduta edo abonatuta.

Epe laburrean eta luzean eratutako fidantzak

Nagusiki, Donostiako Udalak Erakundeari doan lagatako Tolare eraikinagatik 2010. eta 2011. ekitaldietan ordaindutako zenbatekoak dira. Fidantza horiek ordaindutako zenbatekoekin erregistratzen dira eta ez dago haien arrazoizko balioarekin alde adierazgaririk.

Arrazoizko balioa

Arrazoizko balioa aktibo baten salmentagatik jasoko litzatekeen prezioa da, edo balorazio-datan merkatuko parte-hartzaileen artean antolatutako transakzio baten bidez pasibo bat transferitzeko edo ezeztatzeko ordainduko litzatekeena. Arrazoizko



balioa zehazteko, ez da inolako kenketarik egin behar besterentzearen edo beste bide batzuetatik xedatzearen ondorioz egin daitezkeen transakzio-kostuengatik. Ez da inola ere arrazoizko balioztat hartuko transakzio behartu, presazko edo nahi gabeko likidazio-egoera baten ondorio dena.

Onartzen da Erakundearen jardueraren eragiketengatiko kredituek eta zorrek liburuetan duten balioa haien arrazoizko balioari hurbiltzen zaiola.

g) *Efektiboa eta bestelako aktibo likido baliokideak-*

Efektiboan eta bestelako aktibo likido baliokideetan sartzen dira kutxan dagoen eskudirua eta kreditu-entitateetan agerian dauden banku-gordailuak.

h) *Mozkinen gaineko zerga-*

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru-arauaren 12. artikulua arabera, Erakundea zergatik salbuetsita dago (14. Oharra).

i) *Sarrerak eta gastuak-*

Sarrerak eta gastuak sortzapen-irizpidearen arabera egozten dira, hau da, ondasun eta zerbitzuek berek egiten duten benetako korrontea gertatzen denean, edozein izanik ere horietatik eratorritako moneta- edo finantza-korrontea sortzen den unea. Sarrera horiei jaso beharreko ordainaren arrazoizko balioa ematen zaie eta jardueraren ohiko esparruan entregatutako ondasunengatik eta emandako zerbitzuengatik kobratutako zenbatekoak dira, deskontuak, itzulketak, balio erantsiaren gaineko zerga eta salmentekin zerikusia duten gainerako zergak kenduta.

Aitorpena -

Erakundeak bezero batekin egindako kontratu batetik eratorritako diru-sarrerak onartzen ditu, bezeroari konprometitutako ondasun edo zerbitzuen kontrola transferitzen zaionean, hau da, bete beharreko betebeharrak.

Identifikatutako betebeharrak bakoitzerako (ondasunak entregatzea edo zerbitzuak ematea), Erakundeak kontratuaren hasieran zehazten du hartutako konpromisoa denboran zehar edo une jakin batean betetzen den.

Denboran zehar betetzen diren konpromisoetatik eratorritako diru-sarrerak kontratu-betebeharrak erabat betetzeko aurrerapen- edo aurrerapen-mailaren arabera aitortzen dira, betiere Erakundeak aurrerapen-maila neurtzeko informazio fidagarria badu. Data jakin batean, erakundea ez bada gai obligazioaren betetze-maila zentzuz neurtzeko, baina konpromiso hori betetzeko egindako kostuak berreskuratzea espero badu, diru-sarrerak eta dagokion kontraprestazioa baino ez dira aitortzen, ordura arte egindako kostuen pareko zenbatekoan.

Une jakin batean betetzen diren kontratu-betebeharren kasuan, kontratua gauzatzetik eratorritako diru-sarrerak data horretan aitortzen dira. Egoera hori gertatu



arte, produktua ekoiztean edo fabrikatzean sortutako kostuak izakin gisa kontabilizatzen dira.

Kideen kuotak eta erabiltzaileen ekarpenak sarrera gisa aitortzen dira dagokien aldian.

Balorazioa-

Ondasunak saltzetik eta zerbitzuak ematetik datozen sarrera arruntak diruzenbatekoan balioesten dira, edo, hala badagokio, kontrapartidaren arrazoizko balioaren arabera, jaso edo jasotzea espero dena, horretatik eratorria; kontrako ebidentziarik ezean, bezeroari eskualdatu beharreko aktiboetarako adostutako prezioa da, edozein deskonturen zenbatekoa kenduta, prezioan beherapena edo erakundeak eman ditzakeen antzeko beste partida batzuk, bai eta kredituen nominalari erantsitako interesak ere. Hala ere, norberaren jardueraren eragiketetan sortutako kredituei erantsitako interesak sartzen dira, urtebete edo gutxiagoko epemuga dutenak eta kontratuzko interes-tasarik ez dutenak, diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Diru-sarreraren barruan ez dira sartzen erakundeak hirugarrenei jasanarazi behar dizkien ondasunak entregatzeko eta zerbitzuak emateko eragiketak zergapetzen dituzten zergak, hala nola balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak, ezta hirugarrenen kontura jasotako kopuruak ere.

j) Jasotako Diru-laguntzak-

Itzuli behar ez diren diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak, oro har, zuzenean ondare garbian kontabilizatutako diru-sarrera gisa kontabilizatzen dira, baldin eta, hala badagokio, diru-laguntza horiek ofizialki ematea lortzen bada eta horiek emateko baldintzak bete badira edo horiek jasotzeari buruz arrazoizko zalantzarik ez badago, ekitaldiko soberakinera sarrera gisa birsailkatzeko, oinarri sistematiko eta arrazional batean oinarrituta, horiek eragindako gastuekin korrelazioan.

Diru-izaerako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak emandako zenbatekoaren arrazoizko balioaren arabera balioesten dira, eta diruzkoak ez direnak, berriz, jasotako aktiboaren arrazoizko balioaren arabera, bi balio horiek aintzatesten diren uneari erreferentzia eginez.

Itzuli behar ez diren diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak emaitzetara egozteko, haien helburua hartuko da kontuan, eta honako arau hauen arabera egingo da:

- 1) Gutxieneko errentagarritasuna ziurtatzeko edo ustiapen-defizitak konpentsatzeko emandako diru-laguntzak: ematen diren ekitaldiko diru-sarrera gisa egozten dira, salbu eta etorkizuneko ekitaldietako ustiapen-defizita finantzatzeko erabiltzen badira; kasu horretan, ekitaldi horietan egozten dira.



EUSKALTZAINDIA

- 2) Gastu espezifikoak finantzatzeko ematen diren diru-laguntzak: finantzatutako gastuak sortzen diren ekitaldiko sarrerei egozten zaizkie.
- 3) Kapital-diru-laguntzak: Ekitaldiko emaitzari egozten zaizkio, horiekin finantzatutako aktiboei dagokien amortizazioaren proportzioan, edo, hala badagokio, aktibo horiek besterentzen direnean, baja ematen zaienean edo narriaduragatik balio-zuzenketa egiten zaienean. Azken kasu horretan, diruz lagundutako zatiaren baliokide den balio-zuzenketaren zenbatekoa aktiboen galera itzulezin gisa erregistratzen da, zuzenean haien balioaren kontra.
- 4) Xede jakin baterako esleitu gabe lortzen diren diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak: ematen diren ekitaldiko soberakinean kontabilizatuko dira zuzenean.
- 5) Jasotako dohaintzak edo ondareak: jasotako ondasunen izaeraren arabera kontabilizatzen dira:
 - a. Ibilgetu materialaren aktiboak: ekitaldiko emaitzari egozten zaizkio, jasotako aktiboei dagokien amortizazioaren proportzioan, edo, hala badagokio, aktibo horiek besterendu, baja eman edo narriaduragatik balio-zuzenketa egiten denean.
 - b. Zor eta ondare tresnak: besterentzea, narriadura edo inbentarioan baja ematea gertatzen den ekitaldiko emaitzari egozten zaizkio.
 - c. Eskudirua eta helburu jakin bati esleitu gabeko beste aktibo likido baliokide batzuk: Ematen diren ekitaldiko diru-sarreratzat hartzen dira.
 - d. Eskudirua eta helburu jakin bati esleitutako beste aktibo likido baliokide batzuk: Emaitei egozten zaizkie, aurreko erregelen arabera, dohaintza edo ondarea esleitu zaien helburuaren arabera.

Jasotako diru-laguntza itzulgarriak "Epe laburreko zorrak – Beste pasibo finantzarioak" eta "Hartzeko komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak – Hartzekodunak, Herri Aginteak" epigrafeetan erregistratzen dira, diru-laguntza ematen duena Administrazio Publiko bat bada, atxikitako balantzean, ez-itzulgarrien izaera hartzen duten arte. Orduan, hala behar denean, Erakundearen ondare garbiko "Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak" epigrafearen barnean kontabilizatuko dira eta gero emaitzen kontuan sarrera moduan onartuko dira haietatik eratorritako gastuekin batera modu korrelazionatuan jarritz. Ondorio horietarako, ez-itzulgarritzat joko dira, baldin eta diru-laguntza, dohaintza edo ondarea erakundearen alde emateko akordio indibidualizatu bat badago, diru-laguntza emateko ezarritako baldintzak bete badira eta diru-laguntza jasotzeari buruz arazoizko zalantzarik ez badago.



k) Hornidurak-

Erakundearen Diruzainak bereizketa hau egiten du urteko kontuak formulatzen dituenean:

- **Hornidurak:** gaur egungo obligazioak estaltzen dituzten saldo hartzekodunak, dela legezkoak, kontratu bidezkoak, inplizituak edo tazituak, iraganeko gertakarietatik eratorritakoak. Hornidura horiek kitatuz gero beharbada baliabide-irteera eragingo du, baina zehaztugabeak dira zenbatekoari eta/edo kitapen-uneari dagokienez.
- **Kontingentziak:** iraganeko gertakarien ondorioz sortutako balizko obligazioak dira eta etorkizunean gauzatuko dira baldin eta etorkizunean gertakari bat edo gehiago gauzaten badira, Erakundearen borondatea edozein izanik ere.

Urteko kontuek hornidura guztiak biltzen dituzte. Hornidura horiei dagokienez, uste da obligazioa atenditu beharreko probabilitatea kontrakoa baino handiagoa izango dela eta hornidura horien arrazoizko zenbatespena egin ahalko dela. Haien zuzkidura erantzukizunaren edo obligazioaren sorreran egiten da, obligazioaren izaeraren arabera emaitzen kontuan dagokion epigrafearen kargura.

Kontingentziak ez dira urteko kontuetan onartzen; haien gaineko informazioa ematen da memoriaren oharretan, urrunekotzat hartzen ez diren neurrian.

Obligazioa kitatzeko edo transferitzeko beharrezkoa den zenbatekoaren balizko zenbatespenik onenaren gaur egungo balioa ematen zaie hornidurei, kontuan izanik gertakariaren eta haren ondorioen gainean eskuragarri dagoen informazioa eta hornidura horien eguneraketagatik sortutako doiketak eta, sortu ahala, finantza-gastu modura erregistratzen dira. Hori hala izanik ere, epemuga urtebetekoa edo txikiagoa duten hornidurak badira eta haien finantza-efektua adierazgarria ez bada, ez da inongo deskonturik egiten.

Hornidurak emaitza bihurtzen dira obligazio hori kitatzeko baliabide-irteera bat gertatzeko aukera txikiagoa denean, alderantziz baino gehiago.

l) Lanetik bidaltzeagatik izandako kalte-ordainak-

Indarra duen legeriari jarraikiz, Erakundea beharturik dago lan-harremanak baldintza jakinetan eteten dizkien langileei kalte-ordainak ordaintzera. Beraz, arrazoizko kuantifikazioa duten balizko kaleratzeagatik izandako kalte-ordainak gastu moduan erregistratzen dira kaleratzeko erabakia hartzen den ekitaldian.

Honako honi atxikitako urteko kontuetan ez da kontzeptu honengatik inolako hornidurarik egin, ez dagoelako halako egoerarik aurreikusita.

m) Aktiboak eta pasiboak korronte eta ez-korronte moduan sailkatzea-

Honako honi atxikitako balantzean, saldoak ez-korronte eta korronte moduan sailkatzen dira. Saldo korronteak dira obligazioen eta eskubideen aurreikusitako



epemuga, besterentzea edo kitatzea, ekitaldia ixten denetik hasita, 12 hilabetekoa baino txikiagoa dutenak. Sailkapen honekin bat ez datozen bestelakoak ez-korrontetzat hartzen dira.

(5) **Ibilgetu ukiezina**

2022ko eta 2021eko ekitaldietan, honako honi atxikitako balantzeen epigrafe honetan izandako mugimenduak ondokoak dira:

2022ko ekitaldia:	Euroak		
	2021.12.31n dagoen saldoa	Gehikuntzak edo Zuzkidurak	2022.12.31n dagoen saldoa
KOSTUA:			
Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	24.791	48.400	73.191
Aplikazio informatikoak	366.140	-	366.140
	<u>390.931</u>	<u>48.400</u>	<u>439.331</u>
METATUTAKO AMORTIZAZIOA:			
Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	(24.691)	(3.842)	(28.533)
Aplikazio informatikoak	(365.477)	(300)	(365.777)
	<u>(390.168)</u>	<u>(4.142)</u>	<u>(394.310)</u>
IBILGETU UKIEZINA, GARBIA	<u>763</u>	<u>44.258</u>	<u>45.021</u>

2021eko ekitaldia:	Euroak			
	2020.12.31n dagoen saldoa	Gehikuntzak edo Zuzkidurak	Erretiratzeak	2021.12.31n dagoen saldoa
KOSTUA:				
Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	24.691	100	-	24.791
Aplikazio informatikoak	365.846	400	(106)	366.140
	<u>390.537</u>	<u>500</u>	<u>(106)</u>	<u>390.931</u>
METATUTAKO AMORTIZAZIOA:				
Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	(24.691)	-	-	(24.691)
Aplikazio informatikoak	(365.336)	(247)	106	(365.477)
	<u>(390.027)</u>	<u>(247)</u>	<u>106</u>	<u>(390.168)</u>
IBILGETU UKIEZINA, GARBIA	<u>510</u>	<u>253</u>	<u>-</u>	<u>763</u>

2022ko abenduaren 31n, erabileran dauden "Aplikazio informatikoak" epigrafeari dagozkion ibilgetu ukiezineko elementuak daude, erabat amortizatuta, 365.444 euroko zenbatekoarekin (364.525 euro 2021eko abenduaren 31n). Era berean, 2022ko abenduaren 31n, erabileran dauden "Patente, lizentzia, marka eta antzekoak" epigrafeari dagozkion ibilgetu ukiezineko elementuak daude, erabat amortizatuta, 24.691 euroko zenbatekoarekin (24.691 euro 2021eko abenduaren 31n).

(6) **Ibilgetu materiala**

2022ko eta 2021eko ekitaldietan, "Ibilgetu materiala" epigrafeko kontuetan eta hari dagozkion metatutako amortizazioetan mugimendu hauek izan dira:



EUSKALTZAINDIA

2022ko ekitaldia:

	Euroak			2022.12.31n dagoen saldoa
	2021.12.31n dagoen saldoa	Gehikuntzak edo Zuzkidurak	Erretiratzeak edo Hondatzeak	
KOSTUA:				
Eraikuntzak	810.101	-	-	810.101
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala-				
Instalazio teknikoak	59.446	-	-	59.446
Makineria	5.914	-	-	5.914
Bestelako instalazioak	159.082	-	-	159.082
Altzariak	670.721	24.591	-	695.312
Informazioa prozesatzeko ekipoak	1.342.046	93.190	(98.428)	1.336.808
Garraio elementuak	14.574	-	-	14.574
Bestelako ibilgetua	288.524	-	-	288.524
	<u>2.540.307</u>	<u>117.781</u>	<u>(98.428)</u>	<u>2.559.660</u>
Bideango ibilgetua eta aurrerakinak	-	19.691	-	19.691
	<u>3.350.408</u>	<u>137.472</u>	<u>(98.428)</u>	<u>3.389.452</u>
METATUTAKO AMORTIZAZIOA:				
Eraikuntzak	(396.860)	(29.573)	-	(426.433)
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala-				
Instalazio teknikoak	(38.781)	(2.462)	-	(41.243)
Makineria	(5.914)	-	-	(5.914)
Bestelako instalazioak	(159.082)	-	-	(159.082)
Altzariak	(629.399)	(6.422)	-	(635.821)
Informazioa prozesatzeko ekipoak	(1.324.094)	(17.721)	97.479	(1.244.336)
Garraio elementuak	(9.143)	(1.416)	-	(10.559)
Bestelako ibilgetua	(275.265)	(2.460)	-	(277.725)
	<u>(2.441.678)</u>	<u>(30.481)</u>	<u>97.479</u>	<u>(2.374.680)</u>
	<u>(2.838.538)</u>	<u>(60.054)</u>	<u>97.479</u>	<u>(2.801.113)</u>
BALIO-NARRIADURA:				
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala-				
Instalazio teknikoak	(3.239)	-	-	(3.239)
	<u>(3.239)</u>	-	-	<u>(3.239)</u>
IBILGETU MATERIALA, GARBIA:				
Eraikuntzak	413.241	(29.573)	-	383.668
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala-				
Instalazio teknikoak	17.426	(2.462)	-	14.964
Makineria	-	-	-	-
Bestelako instalazioak	-	-	-	-
Altzariak	41.322	18.169	-	59.491
Informazioa prozesatzeko ekipoak	17.952	75.469	(949)	92.472
Garraio elementuak	5.431	(1.416)	-	4.015
Bestelako ibilgetua	13.259	(2.460)	-	10.799
	<u>95.390</u>	<u>87.300</u>	<u>(949)</u>	<u>181.741</u>
Bideango ibilgetua eta aurrerakinak	-	19.691	-	19.691
	<u>508.631</u>	<u>77.418</u>	<u>(949)</u>	<u>585.100</u>



EUSKALTZAINDIA

2021eko ekitaldia:	Euroak			
	2020.12.31n dagoen saldoa	Gehikuntzak edo Zuzkidurak	Erretiratzeak edo Hondatzeak	2021.12.31n dagoen saldoa
KOSTUA:				
Eraikuntzak	780.615	48.099	(18.613)	810.101
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala-				
Instalazio teknikoak	59.446	-	-	59.446
Makineria	5.914	-	-	5.914
Bestelako instalazioak	159.082	-	-	159.082
Altzariak	639.244	38.829	(7.352)	670.721
Informazioa prozesatzeko ekipoak	1.347.098	4.210	(9.262)	1.342.046
Garraio elementuak	14.574	-	-	14.574
Bestelako ibilgetua	288.524	-	-	288.524
	<u>2.513.882</u>	<u>43.039</u>	<u>(16.614)</u>	<u>2.540.307</u>
	<u>3.294.497</u>	<u>91.138</u>	<u>(35.227)</u>	<u>3.350.408</u>
METATUTAKO AMORTIZAZIOA:				
Eraikuntzak	(368.945)	(27.915)	-	(396.860)
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala-				
Instalazio teknikoak	(36.088)	(2.693)	-	(38.781)
Makineria	(5.914)	-	-	(5.914)
Bestelako instalazioak	(159.082)	-	-	(159.082)
Altzariak	(633.694)	(3.057)	7.352	(629.399)
Informazioa prozesatzeko ekipoak	(1.321.963)	(10.878)	8.747	(1.324.094)
Garraio elementuak	(7.727)	(1.416)	-	(9.143)
Bestelako ibilgetua	(272.375)	(2.890)	-	(275.265)
	<u>(2.436.843)</u>	<u>(20.934)</u>	<u>16.099</u>	<u>(2.441.678)</u>
	<u>(2.805.788)</u>	<u>(48.849)</u>	<u>16.099</u>	<u>(2.838.538)</u>
BALIO-NARRIADURA:				
Eraikuntzak	(18.613)	-	18.613	-
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala-				
Instalazio teknikoak	(3.239)	-	-	(3.239)
	<u>(21.852)</u>	<u>-</u>	<u>18.613</u>	<u>(3.239)</u>
IBILGETU MATERIALA, GARBIA:				
Eraikuntzak	393.057	20.184	-	413.241
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala-				
Instalazio teknikoak	20.119	(2.693)	-	17.426
Makineria	-	-	-	-
Bestelako instalazioak	-	-	-	-
Altzariak	5.550	35.772	-	41.322
Informazioa prozesatzeko ekipoak	25.135	(6.668)	(515)	17.952
Garraio elementuak	6.847	(1.416)	-	5.431
Bestelako ibilgetua	16.149	(2.890)	-	13.259
	<u>73.800</u>	<u>22.105</u>	<u>(515)</u>	<u>95.390</u>
	<u>466.857</u>	<u>42.289</u>	<u>(515)</u>	<u>508.631</u>

Erakundeak egoitza nagusia Bilbon du. Egoitza hau Bizkaiko Foru Aldundiarena da eta doan lagata dago. Egoitza nagusiarekin batera Donostiako, Gasteizko eta Iruñeko ordezkariak ditu. Gasteizkoa eta Donostiakoa, Gasteizko Udalak eta Donostiako Udalak utzitakoak dira eta Iruñekoa aldiz, Nafarroako Gobernuak. Bilboko egoitzaren lagapena 2015eko martxoan bukatzen zen. Zentzu honetan, 2014ko irailaren 11n Erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 10 urterako luzapen akordioa sinatu zuten, 2014ko irailaren 1etik hasita. Dena den, eta Bizkaiko Foru Aldundiak kontrakorik esaten ez badu, baimen hori, automatikoki, hamar (10) urteko beste epe birako luzatu ahal izango da.



EUSKALTZAINDIA

2021eko ekitaldian, Gasteizko ordezkariak Etkezarra deritzon eraikinaren erabilera anitzeko aretorea lekualdatu zen, Gasteizko Udalak doan lagata, eta 2013ko ekitaldiaz geroztik erabiltzen ari zen bulegoa, Elizbarrutiko seminarioaren Latinoen pabiloiko lokaletan zegoena, Arabako Foru Aldundiari itzuli zitzaion. Ildo horretan, Gasteizko Udaleko Gobernu Batzordeak, 2020ko azaroaren 6an egindako bileran, erabaki zuen, Erakundearen Arabako Lurralde Historikoko ordezkariaren jarduerak antolatu eta garatzeko, Euskaltzaindiari doan lagatzea udal-jabetzako Etkezarra eraikinaren erabilera anitzeko aretoaren erabilera pribatiboa. Lagapenaren hasierako iraupena 25 urtekoa da, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

Erakundeak Gipuzkoan doan lagata duen ordezkariak ("Luis Villasante Euskararen Ikergunea") abian jartzeko egin zituen zaharberritze lanen kostuak, bere kostu-balioarekin erregistraturik daude. 2011ko ekitaldian, Erakundeak Espainiako Gobernuaren Hezkuntza Ministerioarengandik 300.000 euroko diru-laguntza jaso zuen, aipatutako zaharberritze-kostuen zati bat finantzatzeko. Era berean, 2014. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak 80.000 euroko diru-laguntza eman zion Erakundeari aipatutako Ikergunearen barrualdea hornitzeko (11. Oharra).

2022ko abenduaren 31n, Erakundeak 39.382 euroko konpromiso irmoak zituen ibilgetu materiala inbertitzeko. Horretarako, 2022ko abenduaren 31n 19.691 euroko aurrerakinak eman zituen, erantsitako balantzeko "Bideango ibilgetua eta aurrerakinak" epigrafean erregistratuta daudenak (2021eko abenduaren 31n, Erakundeak ez zuen ibilgetu materialeko elementuetan inbertsio-konpromisorik formalizatu).

Gehigarri modura, 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, "Eraikuntzak" epigrafean Erakundearen jabetzapeko 875 m²-ko lokal baten kontabilitate-balio garbia biltzen da. Lokal hori biltegi moduan erabiltzen da eta Etxebarriko *Saga* eraikineko 5. departamentuko lehen solairuan dago.

Erakundearen bibliotekarako 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera erositako liburuen kostua aurreko koadroko "Bestelako ibilgetua" atalean erregistraturik dago. Data hori baino lehenagoko erosketak bere garaian gastu modura erregistratu ziren, zuzenean emaitzen kontuan. Erakundeak ez du bere biblioteka osatzen duten bolumen eta piezen (korrespondentzia, etab.) balioa biltzen duen inbentario xeherik.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, ibilgetu materialeko elementuak erabat amortizatuta zeuden, 2.404.673 eta 2.479.527 euroko zenbatekoarekin, hurrenez hurren, honako xehetasun honen arabera:

	Euroak	
	2022.12.31	2021.12.31
Eraikuntzak	112.312	112.312
Instalazio teknikoak eta makineria	41.352	39.890
Bestelako instalazioak	159.082	159.082
Altzariak	616.261	616.111
Informazioa prozesatzeko ekipoak	1.211.054	1.287.844
Garraio elementuak	411	411
Bestelako ibilgetua	264.201	263.877
	2.404.673	2.479.527



Ibilgetu materialeko ondasunek ez dute inolako karga edo zergarik.

Erakundearen politika da beharrezkoak diren aseguru-polizak kontratatzea, ibilgetu materialeko elementuak ukitzen ahal dituzten balizko arriskuei estaldura emateko.

Errentamendu operatiboa-

Erakundeak Bilboko Areatza parking-ean lau ibilgailurentzako tokia alokatuta dauka goi mailako eta konfiantzazko karguek beren autoak gorde ditzaten eta Euskaltzaindiko jabetzapekoa den eta argitalpenen banaketarako erabiltzen duen furgoneta bertan uzteko. Kontzeptu honengatik 2022an ordaindutako kopurua 8.902 eurokoa izan da (8.351 euro 2021eko ekitaldian lau ibilgailurentzako tokia alokatzeagatik).

(7) **Finantza-aktiboak, kategoriaren arabera**

Finantza-aktiboen kategoriak-

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, kategorien eta moten arabera finantza-aktiboen sailkapena (kontuan izan gabe eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak (9. Oharra)) eta aktibo horiek liburuetan duten balioa ondokoak dira:

Kategoriak	Euroak					
	Ez-korrontea	Korrontea			Guztira	
		Finantza-inbertsioak	Erabiltzaileak eta berezko jarduerarekin lotutako zordunak	Hainbat zordun		Finantza-inbertsioak
Aktibo finantzarioak kostu amortizatuan	30.601	50.060	17.632	831	99.124	

Kategoriak	Euroak					
	Ez-korrontea	Korrontea			Guztira	
		Finantza-inbertsioak	Erabiltzaileak eta berezko jarduerarekin lotutako zordunak	Hainbat zordun		Finantza-inbertsioak
Aktibo finantzarioak kostu amortizatuan	30.601	30.481	8.542	800	70.424	

Erakundearen Diruzainak uste du aurreko koadroetan xehatutako finantza-aktiboek liburuetan duten zenbatekoa aktibo horien arrazoizko balioari modu onargarrian hurbiltzen zaizkiola.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, aktibo ez-korronteko "Epe luzeko finantza-inbertsioak" kontuan jasotzen dira nagusiki Gipuzkoako ordezkari gaur egun kokaturik dagoen "Tolare baserria" eraikina modu pribatuan erabiltzeko eta hura mantentzeko emandako fidantzak; Donostiako Udalak 2010. ekitaldian doan laga zion eraikina 25 urterako. Aurreko koadroetan xehatutako beste finantza-aktiboek 12 hilabetez beherako epemuga dute.



EUSKALTZAINDIA

Bestalde, 2022ko eta 2021eko ekitaldietan, ohar berean adierazten diren hondatzeengatik izan ezik, ez da finantza-aktiboetatik datozen galera eta/edo irabazi garbirik gertatu.

"Erabiltzaileak eta berezko jarduerarekin lotutako zordunak" epigrafean zalantzarik kobrantza duten saldoak daude; hondatzeengatik izandako galera erakusten duen kontua eratu da saldo horiendako, xehetasun honekin:

	Euroak	
	2022.12.31	2021.12.31
Erabiltzaileak eta berezko jarduerarekin		
lotutako zordunak	89.429	69.862
Hondatzeengatik izandako		
balio-zuzenketak	(39.369)	(39.381)
	<u>50.060</u>	<u>30.481</u>

Erakundeak, urte bat baino gehiago kobratu gabe dituen zordunak, hondatzen ditu normalean.

2022ko eta 2021eko ekitaldietan, finantza-aktiboen kreditu-arriskuengatik sortutako hondatzeengatik izandako galerak erakusten dituzten zuzenketa-kontuen mugimenduaren azterketa (aktiboei amortizatutako kostuaren balioa eman zaie) hauxe da:

	Euroak
Saldoa 2020ko abenduaren 31n	39.449
2021eko ekitaldiko hondatzea	30
Ekitaldiko hondatzearen aplikazioa	(98)
Saldoa 2021eko abenduaren 31n	39.381
2022ko ekitaldiko hondatzea	18
Ekitaldiko hondatzearen aplikazioa	(30)
Saldoa 2022ko abenduaren 31n	<u>39.369</u>

Aurreko koadroko hondatzeak, beste kontzeptu batzuekin batera, "Ustiapeneko bestelako gastuak – Merkataritza eragiketetatik datozen horniduren aldaketak, hondatzeak eta galerak" epigrafearen barnean erregistratu dira.

(8) **Finantza-tresnen arrisku-izaera eta arrisku-mailaren gaineko informazioa**

Erakundearen finantza-arriskuak Zuzendaritzak kudeatzen ditu eta hark beharrezkoak diren mekanismoak ezarrita dauzka interes-tasen aldaketen eta kreditu- eta likidezia-arriskuen gorabeheren aurreko egoera kontrolatzeko. Jarraian zerrendatzen dira Erakundearengan eragina duten finantza-arrisku nagusiak:



Likidezia-arriskua-

Erakundeak jadanik konprometitutako ordainketei eta/edo inbertsio berrietatik eratorritako konpromisoari aurre egiteko izan dezakeen ezintasunaren arriskuaz ari gara.

Likidezia ziurtatzeko eta bere jardueratik eratorritako ordainketa-konpromiso guztiak bete ahal izateko, Erakundeak bere balantzea erakusten duen diruzaintza du eta, beharrezkoa balitz, kanpoko finantzaketa eskatzen du.

Erakundeak diruzaintza dibertsifikaturik dauka kreditu-maila handiko finantza-entitateen artean.

Kreditu-arriskua-

Kreditu-arriskuaz ulertzen da hirugarrenek Erakundearekin dituzten kontratu-obligazioak ez betetzeak sor dezakeen edozein galera izateko aukera.

Ekitaldian emandako diru-laguntza eta laguntzengatik kobratu beharreko kontuekin eta 2022ko abenduaren 31n kobratzeke daudenekin gehienbat lotuta daude arrisku horiek (11. Oharra). Kreditu-arriskuaren pilatze adierazgarririk ez duten ente publikoetatik eta erabiltzaileengandik eta norberaren jardueratik jasotakoak dira diru-laguntza eta laguntza horiek.

Bestalde, erakundeak kreditu-maila egokia duten finantza-erakundeetan mantentzen du diruzaintza, eta aitortutako kalitate handiko erakundeekin baino ez dira egiten eragiketak.

(9) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n itxitako balantzeetako epigrafe honetan saldo hau dago:

	Euroak	
	2022.12.31	2021.12.31
Kutxa	1.104	708
Ageriko kontu korronteak	540.018	694.523
	<u>541.122</u>	<u>695.231</u>

Kontu korronteak libre erabiltzekoak dira.

(10) Fondo propioak

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n itxitako urteko ekitaldietan "Fondo propioak" kapituluko epigrafeetan mugimendu hauek izan dira:



EUSKALTZAINDIA

2022ko ekitaldia	Euroak			
	2021.12.31n dagoen saldoa	2021eko soberakin negatiboa aplikatzea	2022ko soberakin negatiboa	2022.12.31n dagoen saldoa
Aurreko ekitaldietako soberakinak	1.140.752	(1.122)	-	1.139.630
Ekitaldiko soberakinak	(1.122)	1.122	(1.262)	(1.262)
	<u>1.139.630</u>	<u>-</u>	<u>(1.262)</u>	<u>1.138.368</u>

2021eko ekitaldia	Euroak			
	2020.12.31n dagoen saldoa	2020ko soberakin negatiboa aplikatzea	2021eko soberakin negatiboa	2021.12.31n dagoen saldoa
Aurreko ekitaldietako soberakinak	1.141.971	(1.219)	-	1.140.752
Ekitaldiko soberakinak	(1.219)	1.219	(1.122)	(1.122)
	<u>1.140.752</u>	<u>-</u>	<u>(1.122)</u>	<u>1.139.630</u>

Aurreko ekitaldietako soberakinak -

Honako honi atxikitako 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n itxitako balantzeetako epigrafe honetan ageri den saldoan daude, Erakundea eratu zenetik, sortu eta banatu gabe dituen soberakin positibo eta negatiboak.

(11) Jasotako diru-laguntzak

Honako honi atxikitako 2022ko eta 2021eko ekitaldien balantzeko "Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak" epigrafean mugimendu hauek izan dira:

2022ko eta 2021eko ekitaldiak:	Euroak							
	Jasotako zenbatekoa	2020.12.31n dagoen saldoa	Gehikuntzak	2021eko ekitaldiko Emaizan egotzita	2020.12.31n dagoen saldoa	Gehikuntzak	2022ko ekitaldiko Emaizan egotzita	2022.12.31n dagoen saldoa
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak-								
Kapital diru-laguntza	300.000	181.271	-	(12.721)	168.550	-	(12.721)	155.829
Kapital diru-laguntza	80.000	4.429	-	(1.194)	3.235	-	(1.194)	2.041
Kapital diru-laguntza	73.000	-	-	-	-	73.000	(9.125)	63.875
Beste dohaintza batzuk	88.878	85.355	-	(170)	85.185	-	-	85.185
Beste ondare batzuk	79.880	-	79.880	(1.995)	77.885	-	(5.886)	71.999
Beste ondare batzuk	6.000	-	6.000	(150)	5.850	-	(442)	5.408
Beste dohaintza batzuk	9.975	-	9.252	(1.155)	8.097	723	(294)	8.526
	<u>637.733</u>	<u>271.055</u>	<u>95.132</u>	<u>(17.385)</u>	<u>348.802</u>	<u>73.723</u>	<u>(29.662)</u>	<u>392.863</u>

2011ko ekitaldian, Erakundeak "Luis Villasante Euskararen Ikergunea" izeneko ordezkari itxuratu zuen Gipuzkoan; ikergunea Donostiako Udalak doan lagata dago, behin zaharberitze lanak egin ondoren. Ekitaldi horretan, Erakundeak Espainiako Gobernuaren Hezkuntza Ministerioak emandako 300.000 euroko diru-laguntza jaso zuen ordezkari itxurako zaharberitze kostuaren zati bat ordaintzeko. Era berean, 2014ko ekitaldian Erakundeak 80.000 euroko diru-laguntza bat jaso zuen Gipuzkoako Foru Aldundiarengandik Ikergunearen barrualdea hornitzeko. Diru-laguntza hauek emaitzei egotzen zaizkie diruz



EUSKALTZAINDIA

lagundutako aktiboak amortizatzen diren heinean. 2022ko ekitaldian 13.915 euro egotzi zaizkie emaitzei eta honako honi atxikitako emaitzen kontuko "Ekitaldiko soberakinari traspasatutako kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak" epigrafean erregistraturik dago (13.915 euro 2021eko ekitaldian).

2022ko ekitaldian, Erakundeak Bizkaiko Foru Aldundiak emandako 73.000 euroko diru-laguntza jaso du "Data Center Berria" inbertsio-proiektua partez finantzatzeko. Proiektuaren helburua da entitatearen garapen informatikoa bermatzea hainbat erreminten bidez, arloan aditua den entitate baten laguntzarekin. Diru-laguntza hau emaitzei egotzen zaie diruz lagundutako aktiboak amortizatzen diren heinean. 2022ko ekitaldian 9.125 euro egotzi zaie emaitzei eta honako honi atxikitako emaitzen kontuko "Ekitaldiko soberakinari traspasatutako kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak" epigrafean erregistraturik dago.

Bestalde, "Beste dohaintza eta ondare batzuk" kontuan erregistratutako saldoa, Bergarako "Jose Maria Irigoyen Patronato"ak Erakundeari emandako dohaintzarekin bat dator. Aipatutako Patronatoak desegin aurretik Erakundearen esku utzitako diru-funtsak Bergarako euskalgintzaren mesederako ekintzetan erabiltzeko xedea zuen. 2008ko irailaren 5ean Patronatoak diru-funtsaren titulartasuna Euskaltzaindiaren esku utzi zuen, beti ere, Euskaltzaindiak Patronatoak izandako xede berberarekin erabiltzeko baldintzapean. 2009ko ekainaren 1ean, hitz emandakoari jarraiki, Euskaltzaindiak Bergarako Jardun Euskara Elkarteari 3.500 euroko dirulaguntza bat eman zion "Maitasunez...amodiozko gutunak" liburua argitaratzeko. Harrezkero, ez da beste eskaririk jaso.

2021eko ekitaldian, erakundeak bi legatu jaso zituen, 85.880 euroko zenbateko bateratuarekin, eta horiek, 2021eko uztailaren 16an egindako Programa-kontratuaren Batzorde Teknikoaren bileran azaldua eta onartua izan zen bezala (2021eko abenduaren 9ko Jarraipen Batzordearen bileran berretsia izan zena), Euskaltzaindiaren Arabako ordezkartzaren barne-egokitzapenarekin lotutako kostuen gehiengoa ordaintzeko erabili dira. Legatu horiek emaitzei egotzen zaizkie, finantzatutako aktiboak amortizatu ahala. 2022ko ekitaldiko emaitzei egotzitako zenbatekoa 6.328 eurokoa izan da (2.145 euro 2021eko ekitaldian), eta erantsitako emaitzen kontuko "Ekitaldiko soberakinari traspasatutako kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak" epigrafean erregistratuta dago.

Horrez gain, erakundeak 2022ko ekitaldian Mintzola Fundazioaren 723 euroko dohaintza jaso du (2021eko ekitaldian 9.252 eurokoa) ahozotasunarekin lotutako diziplinen ikerketa eta zabalkundea finantzatzeko. 2022ko ekitaldiko emaitzei egotzitako zenbatekoa 294 eurokoa izan da (1.155 euro 2021eko ekitaldian), eta erantsitako emaitzen kontuko "Ekitaldiko soberakinari traspasatutako kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak" epigrafean erregistratuta dago.

Era berean, 2022ko ekitaldian, Erakundeak "Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak" epigrafean erregistratu ditu organismo publiko eta pribatuek ustiakuntzarako emandako 2.689.990 euroko diru-laguntzak (2.464.744 euro 2021eko ekitaldian), Erakundearen jarduerari zuzenean lotutako gastuak ordaintzeko erabiltzen direnak. 2022ko eta 2021eko ekitaldietako diru-laguntza horien xehetasuna, kontzeptuka sailkatuz, ondokoa da:



EUSKALTZAINDIA

2021eko ekitaldia:	Erakundea	Kontzeptua	Euroak	
			Emandako zenbatekoa	Diru-laguntzetatik izandako diru-sarrerak, 2021eko ekitaldian
Herri Aginteak zordunak, diru-laguntzengatik- Aurreko ekitaldietaiko diru-laguntzen programa- Arabako Foru Aldundia		Erakundearen jarduera ekonomikoa sostengatzen laguntzea Balio-zuzenketak, hondatzeagatik	17.816 (17.816)	2021.12.31 in kobratu gabe dagoena (14. Oharra) 17.816 (17.816)
2021eko ekitaldiko diru-laguntzen programa- 2021eko Programa-kontratu- Eusko Jaurlaritza Bizkaiko Foru Aldundia Gipuzkoako Foru Aldundia Arabako Foru Aldundia		Erakundearen jarduera ekonomikoa sostengatzen laguntzea Erakundearen jarduera ekonomikoa sostengatzen laguntzea Erakundearen jarduera ekonomikoa sostengatzen laguntzea Erakundearen jarduera ekonomikoa sostengatzen laguntzea	1.260.000 355.000 225.220 70.000 1.910.220	378.000 - 95.422 21.000 494.422
Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministerioa Nafarroako Gobernua Gasteizko Udala Bilboko Udala Iruñeko Udala		Jardueren finantzaketa eta funtzionamendu gastuak Akordioa Euskaltzaindiarekin -2021 Lankidetzaz hitzarmena -2021 Lankidetzaz hitzarmena -2021 Jardueren finantzaketa eta funtzionamendu gastuak	250.000 181.428 63.000 35.500 12.000 541.928 2.452.148	- - 12.600 - - 12.600 507.022
Hainbat zordun- 2021eko ekitaldiko diru-laguntzen programak- EUDEL		Toponimia lanak finantzatzea	12.830 2.464.978	852 507.874

Garbia



Erakundearen Diruzainak uste du diru-laguntzekin lotutako baldintzak betetzen direla.

(12) Hornidurak eta kontingentziak

Honako honi atxikitako 2022ko eta 2021eko ekitaldien balantzeko "Epe luzeko hornidurak" epigrafean mugimendu hauek izan dira:

	Euros		
	2021.12.31n dagoen saldoa	Aplikazioak	2022.12.31n dagoen saldoa
Pertsonalaren epe luzeko lansarien obligazioak	79.778	-	79.778

	Euros		
	2020.12.31n dagoen saldoa	Aplikazioak	2021.12.31n dagoen saldoa
Pertsonalaren epe luzeko lansarien obligazioak	114.778	(35.000)	79.778

Azken urteotan, erakundeak hainbat merkataritza-kontratu egin ditu pertsona fisikoekin (autonomoak), antzeko egoeretan erakundeko plantillako langileek egin dituzten eta/edo egiten ari diren ikerketa-lan jakin batzuk egiteko. Alde horretatik, adierazi behar da, zenbait kasutan, mendeko langile autonomoek (aurrerantzean, TRADE) kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dutela kontratua amaitzen denean. 2022eko abenduaren 31n, 79.778 eurokoa da erakundeak (TRADEekin) kontratuak amaitzean aurre egin beharko liekeen obligazioen egungo balioa (79.778 euro, 2021ko abenduaren 31n), eta erantsitako balantzean jasota dago, "Pertsonalaren epe luzeko lansarien obligazioak" epigrafean. Zuzkidurak eta horniduren soberakinak, hurrenez hurren, erantsitako emaitzen kontuetako "Pertsonal gastuak – Hornidurak" epigrafean zordunduta eta abonatuta erregistratzen dira.

2021eko martxoaren 17an, erakundeak amaitutzat eman zuen, ados jarrita, mendeko autonomo batekin zuen lan-harremana. Mendeko autonomoari erakundearekin lotzen zuen harremanari amaiera emateko ordaindutako zenbatekoa 35.000 eurokoa zen, eta beste kontzeptu batzuekin batera erregistratuta dago erantsitako emaitzen kontuan, hurrenez hurren, honako epigrafe hauetan zordunduta eta abonatuta: "Pertsonal gastuak – Soldatak, lansariak eta antzekoak" eta "Pertsonal gastuak – Hornidurak".

Erakundearen diruzainaren ustez, hornidura hori, 2022ko abenduaren 31n, nahikoa da, eta ez gehiegizkoa.

**(13) Finantza-pasiboak, kategoriaren arabera*****Finantza-pasiboen kategoriak-***

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, kategoriaren eta moten arabera finantza-pasiboen sailkapena eta pasibo horiek liburuetan duten balioa ondokoak dira:

Kategoriak	Euroak			
	Epe laburreko finantza-tresnak			
	Epe laburreko zorrak Beste pasibo finantzarioak	Hartzeko komertzialak eta ordaintzako bestelako kontuak		
	Hornitzaileak	Langileria	Guztira	
Pasibo finantzarioak kostu amortizatuan	10.825	137.586	663	138.249

Kategoriak	Euroak			
	Epe laburreko finantza-tresnak			
	Epe laburreko zorrak Beste pasibo finantzarioak	Hartzeko komertzialak eta ordaintzako bestelako kontuak		
	Hornitzaileak	Langileria	Guztira	
Pasibo finantzarioak kostu amortizatuan	8.974	81.673	31.265	112.938

Kreditu-entitateekin dauden zorrak-

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, Erakundeak ez du zorrik kreditu-entitateekin. Bestalde, 2021eko abenduaren 31n, Erakundeari Kutxabankekin emandako kreditu-kontuan 378.000 euro zeuden erabili gabe.

2021eko ekitaldian kanpoko finantzaketatik sortutako finantza-gastuak 440 eurokoak izan ziren eta honako honi atxikitako emaitzen kontuko "Gastu finantzarioak – Hirugarrenetikiko zorrenak" epigrafean erregistraturik daude.

Arrazoizko balioaren gaineko informazioa -

Erakundearen Diruzainak uste du zorren kontu-sailek eta ordaindu beharreko kontu-sailek liburuetan duten zenbatekoa haien arrazoizko balioari hurbiltzen zaizkiola.

Galdu-irabazi garbiak finantza-pasiboen kategorien arabera -

Bestalde, 2022ko eta 2021eko ekitaldietako finantza-pasiboen kategorietatik eratorritako galdu-irabazi garbiak ondokoak dira:



EUSKALTZAINDIA

	Euroak	
	Ordaindu beharreko zorrak eta kontu-sailak	
	2022	2021
Finantza-gastuak, interes tasa eraginkorraren metodoa aplikatuz	-	440

(14) Egoera fiskala

Erakundea 11/2013 Foru Arauan, abenduaren 5ekoa, ezarritako zerga-araubidearen mende dago. Arau horretan adierazitakoaren arabera, Erakundea Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita dago.

Erakundeak azken lau urteetan egindako eragiketa guztiak zerga-ikuskatzaileek ikuskatzeko moduan daude. Erakundearen Diruzainaren iritziz, ez da urteko kontuetan adierazitakoez gain etorkizuneko ikuskapenetatik eratorritako pasibo fiskalik espero.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, Herri Aginteekin dauden saldo zordun eta hartzekodunak honela xehatzen dira:

	Euroak			
	2022.12.31		2021.12.31	
	Zordunak	(Hartzekodunak)	Zordunak	(Hartzekodunak)
Organismo publiko zordunak, diru-laguntzengatik (11. Oharra)	591.622	-	507.022	-
Gizarte Segurantzako organismoak	-	(34.494)	-	(31.323)
Ogasun Publiko zorduna (hartzekoduna), BEZagatik	-	(14.319)	596	-
Ogasun Publiko hartzekoduna, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarengatik	-	(84.263)	-	(88.224)
	<u>591.622</u>	<u>(133.076)</u>	<u>507.618</u>	<u>(119.547)</u>

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren gainean egindako atxikipengatik Ogasun Publikoari ordaindu beharreko kontuak 2022ko eta 2021eko ekitaldietako azken hiruhilekoetan egindakoak dira, hurrenez hurren.

Gizarte Segurantzako Organismoei dagokienez, 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n Erakundeak dauzkan saldo hartzekodunak, 2022ko eta 2021eko abenduari dagozkion kuotak jasotzen ditu, hurrenez hurren.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, "Zordunak, Herri Aginteak" epigrafean ondoko ageri da:



EUSKALTZAINDIA

	Euroak	
	2022.12.31	2021.12.31
Zordunak, Herri Aginteak-		
Organismo publiko zordunak,		
diru-laguntzengatik (11. Oharra)	609.438	524.838
Ogasun Publikoa zorduna, BEZagatik	-	596
Balio-zuzenketak,		
hondatzeagatik	(17.816)	(17.816)
	<u>591.622</u>	<u>507.618</u>

2022ko eta 2021eko ekitaldietan, Administrazio Publikoei kobratu beharreko kontuen kreditu-arriskuagatik sortutako hondatzeagatik galerak erakusten dituzten zuzenketa-kontuen mugimenduaren azterketa hauxe da:

	Euroak
Saldoa, 2020ko abenduaren 31n	17.816
Hondatzeagatik izandako galera garbia, ekitaldian	-
Haren xedeari aplikatutako hornidura	-
Saldoa, 2021eko abenduaren 31n	17.816
Hondatzeagatik izandako galera garbia, ekitaldian	-
Haren xedeari aplikatutako hornidura	-
Saldoa, 2022ko abenduaren 31n	<u>17.816</u>

2021eko uztailaren 5ean Programa-Kontratua sinatu zuten, alde batetik, Euskaltzaindiak, eta bestetik, Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Foru Aldundiek, euren arteko lankidetzarako 2021-2024 laurtekorako oinarri orokorrak ezartzeko eta, Erakundearen etorkizuneko jarduera bermatzeko eta kontuen aldian aldiko errendapena bermatzeko, alde bakoitzak onartzen duen finantza-konpromiso eta konpromiso materialen esparrua arautzeko. Hitzarmen horrek 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak zituen eta aurreikusita dago lau urteko indarraldia izatea, eta urtez urte luzatu ahal izatea.

Administrazio Publiko izenpetzaileek 2022ko ekitaldirako sortutako ekarpena 1.867.220 eurokoa izan da, erakundearen jarduerarekin zuzenean lotutako gastuak ordaintzeko, eta 73.000 eurokoa, "Data Center Berria" izeneko inbertsio-proiektua finantzatzeko (1.910.220 euro, erakundearen jarduerarekin zuzenean lotutako gastuak ordaintzeko 2021eko ekitaldian) (11. Oharra). 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n kobratzeke zeuden 11. Oharrean adierazitako saldo zordunak.



(15) **Sarrerak eta gastuak**

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n itxitako urteko ekitaldiei dagozkien emaitzen kontuetako zenbait epigraferen edukia jarraian xehakatzen da:

Erakundearen berezko jardueraren sarrerak-

Honako honi atxikitako emaitzen kontuetako epigrafe honen datuak ondokoak dira, xeheki emanak:

	Euroak	
	2022	2021
Kideen kuotak	481	450
Erabiltzaileen ekarpenak	123.182	53.115
Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak (11. Oharra)	2.689.990	2.464.744
	<u>2.813.653</u>	<u>2.518.309</u>

"Kideen kuotak" eta "Erabiltzaileen ekarpenak" epigrafeetan islatutako zenbatekoetan, funtsean, biltzen dira Erakundeak argitaratutako liburuen salmentengatik eta hirugarrenen enkarguz emandako ikastaro, hitzaldi, erakusketen antolaketa eta hizkuntza eta toponimiari buruko aholkularitzagatik izandako sarrerak.

Gizarte-zamak-

Honako honi atxikitako 2022ko eta 2021eko ekitaldietako emaitzen kontuen epigrafe honetan funtsean biltzen dira Erakundeak Gizarte Segurantzako organismoen ordaindutako enpresa-kuotak.

Kanpoko zerbitzuak-

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, honako honi atxikitako emaitzen kontuan epigrafe honen osaketa ondokoa da:



	Euroak	
	2022	2021
Proiektuak eta lan-batzordeak	651.180	470.142
Errentamenduak eta kanonak	19.188	13.204
Konponketak eta kontserbazioa	109.717	101.343
Profesionalen zerbitzu independenteak	148.860	93.325
Garraioak	3.609	3.546
Aseguru-sariak	5.130	4.887
Bankuko zerbitzuak eta antzekoak	2.544	7.501
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	90.424	11.450
Hornidurak	43.507	25.945
Bestelako zerbitzuak	227.744	233.837
	<u>1.301.903</u>	<u>965.180</u>

(16) Bestelako informazioa***Plantilla-***

2022ko eta 2021eko ekitaldietako langileen batez besteko plantilla, kategorien arabera sailkatua, ondokoa da:

	Langileen batez besteko kopurua	
	2022	2021
Arloko arduradunak	5	5
Kudeatzailea	1	1
Idazkariordea	1	1
Teknikariak / Goi mailako tituludunak	5	6
Administrariak	6	5
Ikertzaileak	8	8
	<u>26</u>	<u>26</u>

2022 eta 2021 ekitaldietan zehar Erakundeak ez du ehuneko hogeita hamahiru baino gehiagoko ezintasuna duen langilerik izan.

Gehigarri modura, jarraian azaltzen da, 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, hurrenez hurren, zein zen Erakundeoko langileen eta Zuzendaritzako kideen sexuen arabeko banaketa, kategorietan xehakatur:



EUSKALTZAINDIA

Kategoria	Pertsona kopurua			
	2022.12.31		2021.12.31	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Zuzendaritzako kideak	4	2	4	2
Kudeatzailea	1	-	1	-
Idazkariordea	1	-	1	-
Arloko arduradunak	5	-	5	-
Teknikariak / Goi mailako tituludunak	1	4	2	4
Administrariak	2	4	1	2
Ikertzaileak	3	5	4	5
	17	15	18	13

Kontu-ikuskaritzaren ordainsariak-

Hurrenez hurren, 11.330 eurokoak eta 11.000 eurokoak izan dira sozietatearen auditoreak 2022ko eta 2021eko ekitaldietarako emandako urteko kontuen auditoretza-zerbitzuei dagozkien ordainsariak. Halaber, 2022ko ekitaldian, enpresa auditoreak 2.142 euro fakturatu ditu emandako beste zerbitzu batzuegatik (2.020 euro 2021eko ekitaldian).

Bestalde, auditorearen sare bereko beste sozietate batzuek 2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian 3.000 euro fakturatu dituzte eskainitako beste zerbitzuegatik Erakundeari (2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian, ez zioten zerbitzurik eman Erakundeari).

(17) Zuzendaritzako kideen eta Goi Mailako Karguen ordainsariak

2022ko eta 2021eko ekitaldietan Erakundearen Zuzendaritzako kideek eta Goi mailako karguek jasotako ordainsariak, kontzeptuen arabera sailkatuak, ondokoak dira:

	2022.12.31					2021.12.31				
	Ordainsari finkoa	Egitasmoen zuzendaritza	Aseguru sariak	Dietak	Guztira	Ordainsari finkoa	Egitasmoen zuzendaritza	Aseguru sariak	Dietak	Guztira
Zuzendaritza	-	17.159	702	42.191	60.052	-	16.651	764	40.969	58.384
Goi mailako karguak	156.047	-	351	-	156.398	150.520	-	255	-	150.775
	156.047	17.159	1.053	42.191	216.450	150.520	16.651	1.019	40.969	209.159

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n ez zegoen Zuzendaritzako kideei ez eta Goi mailako langileei emandako aurrerakin edo krediturik, beraz, ez da berme modura horien konturako obligaziorik hartu.

**(18) Efektibo-fluxuen egoera-orria**

Jarraian erakusten dira Erakundearen 2022ko eta 2021eko ekitaldien efektibo-fluxuen egoera-orriak:

	Euroak	
	2022	2021
USTIAKUNTZAKO JARDUEREN EFEKTIBO-FLUXUAK:		
Ekitaldiaren soberakina, zergen aurretik	(1.262)	(1.122)
Emaitzaren doiketak-		
Ibilgetuaren amortizazioa (5. eta 6. oharrak)	64.196	49.096
Hondatzeagatik izandako balio-zuzenketak	(12)	(68)
Hornidura-aldaketa (12. oharra)	-	(35.000)
Diru-laguntzen, dohaintzen eta ondareen egozketa	(29.662)	(17.215)
Ibilgetuaren bajen eta besterentzeagatik izandako emaitzak	860	(14.489)
Finantza-sarrerak	-	(9)
Finantza-gastuak	-	440
	<u>35.382</u>	<u>(17.245)</u>
Aldaketak kapital korrontean-		
Izakinak	(4.078)	(284)
Zordunak eta kobratu beharreko bestelako kontuak	(112.661)	56.844
Bestelako aktibo korronteak	-	1.297
Hartzekodunak eta ordaindu beharreko bestelako kontuak	40.691	1.709
Bestelako pasibo korronteak	(90)	-
	<u>(76.138)</u>	<u>59.566</u>
Ustiakuntzako jardueren bestelako efektibo-fluxuak-		
Interesen ordainketa	-	(440)
Interesen kobrantza	-	9
	<u>-</u>	<u>(431)</u>
	<u>(42.018)</u>	<u>40.768</u>
INBERTSIO JARDUEREN EFEKTIBO-FLUXUAK:		
Inbertsioengatik izandako ordainketak-		
Ibilgetu ukiezina	(48.400)	-
Ibilgetu materiala	(137.472)	(91.138)
Bestelako finantza-aktiboak	(31)	-
	<u>(185.903)</u>	<u>(91.138)</u>
Desinbertsio ondoriozko kobrantzak		
Ibilgetu materiala	89	15.000
	<u>(185.814)</u>	<u>(76.138)</u>
FINANTZAKETA-JARDUEREN EFEKTIBO-FLUXUAK:		
Ondare-tresnengatik izandako kobrantzak-		
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak	73.723	94.962
	<u>73.723</u>	<u>94.962</u>
EFEKTIBOAREN (EDO ANTZEKOEN) GEHIKUNTZA (MURRIZKETA) GARBIA	<u>(154.109)</u>	<u>59.592</u>
Efektiboa edo baliokideak, ekitaldiaren hasieran	695.231	635.639
Efektiboa edo baliokideak, ekitaldiaren bukaeran	541.122	695.231